

6

**Idazkiak**

Ulertu nahi dituzu zure nominan agertzen diren kontzeptuak?

16

**Gramatika**

Herrien izenak eta amaierako artikulua: *Azkoitin* ala *Azkoitian*?

18

**Lanean euskaraz**

Bi puntuak (: ) esaldi trinkoegiak askatzeko balio dute.

**Francesco Cossiga,****Italiako presidente ohia:**

**“Lehendakariaren proposamena irakurri dut, eta erabat sinesgarria eta zuhurra dela iruditzen zait: moderatuegia dela esango nuke”.**



Unibertsitateko irakaslea izandakoa, Italiako Errepublikako presidente ohia... Politika arloan eskarmentu handiko gizona dugu Francesco Cossiga. Oraindik ere, gaur egun lanean jarraitzen du, eta, hala ere, hartu du astia gure galderei erantzuteko. Labur, baina argi bezain zorrotz aritu zaigu partiduen ilegalizazioaz, *Egunkariaren* itxieraz, Europan gurea bezalako herri txikiak duten aukerez... Ikusiko duzunez, korapilorik ez du mihian.

10. or.

**Munduko Euskal Giza Taldeak, pausu bat hurbilago**

Euskal Giza Taldeen Hirugarren Mundu Batzarrak 175 lagun bildu zituen Gasteizen pasa den uztailean. Parte hartzaile eta antolatzaileen esanetan, aurrera pauso handiak egin dira bertan. Alde batetik, inoiz baino gazte gehiago hurbildu dira hara; eta beste aldetik, jorrotutako gaiak eta hartutako erabakiei dagokienez, ekarpen ugari izan dira: besteak beste, herri askoren diasporerako esperientziak entzuteko aukera izan dugu.

13. or.

**Eztabaida:**

**Umeek gero eta denbora gehiago ematen dute eskolaz kanpoko ekintzetan. Egokia al da? Estresatu egiten ditugu?**

Gure aldean, gaur egungo umeek, eskolaz gain, gauza asko egiten dituzte: kirolak, musika, dantza, informatika, atzerriko hizkuntzak... Garbi dago eskolaz kanpoko ekintzetako aukera zabala dela, zabalegia agian. Haurrentzat ona da? Badute jolasteko astirik? Gehiegi estutzen ditugu etorkizunerako prestatzearen aitzakiarekin? Gai honen inguruan bost adituren iritziak jaso ditugu.

20. or.





PAPER  
BIRZIKLATUA

**Zuzendaritza:**  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**  
Joseba Lozano

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:** Itxaropena S.A.

**Marrakial:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**  
Ur Apalategi, Josemari Arakama, Aintzane Arrieta, Luis Elizondo, Xabier Elortza, Hasier Etxeberria, Luistxo Fernandez, Manuel Fernandez, Karmele Jaio, Joseba Lozano, Luma, Alex Mungia, Nerea Pikabea, Concetta Probanza, Josemari Robles, Rosa Mari Urrutia, Iban Zaldúa.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke, bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigorrez bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziaik.

# ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

**ISSN:** 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1. 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. /<http://www.ivap.org>

PERTSONAIA

## Iban Garate, telebistako aurkezlea: “Gazteei hitanoz hitz eginez gero, konplizitate handiagoa sortzen da”



**Azkoitiar naturalizat du bere burua, baina azpeitiarrekin ongi moldatzen da, jatorrak omen dira. Azpeitiar eta azkoitiarren arteko saltsa hori polita dela uste du. Hamabost urte besterik ez zuela *Goenkale*-n ikusi genuen lehen aldiz, mediku baten seme bihurriaren papera egiten. Geroztik, gaztetxoei zuzendutako zenbait saio aurkezten aritu da telebistan. Hogeita bat urte ditu, Ikusentzunezko Komunikazioko ikaslea da, eta Baleukok ETBrentzako ekoizten duen *Betizuzenean* saioaren barnean *Show BT* izeneko tartea aurkeztuko du aurtengo denboraldian.**

**Arralde izeneko herri batean hasi zenuen telebistan ibilbidea. Aitorren ama istripuan hil zen, eta hortik haren errebeldia. Nola heldu zinen *Goenkale*-ra?**

Ustekabea. Azkoitiko ikastolako antzerki taldean ari nintzen eta ETBkoek deitu zidaten *casting* bat egiteko. Mutil indartsu eta altu bat behar zuten, errebeldea eta erretzailea... Niregandik oso bestelakoa, alegia... Gaupasa eginda joan nintzen *casting*-era. Handik atera zen Aitor. Behin andre batek kalean hala esan zidan, Arantzazuko fraileengana eramango ninduela zuzentzeko, okerra nintzela eta!

**Geroztik, gaztetxoentzako hainbat saio aurkezten aritu zara. Bada zure jardunean gaur egun euskaldunon artean oso arrunta ez den zerbaitek: gaztetxoei hitanoz egiten diezu...**

Apustu pertsonala da. Ez da ohikoa, baina nik nire lagunekin hala egiten dut. Urola Kostako herri batetik irteten bazara, oso gutxi erabiltzen da hitanoa gure adinekoen artean, hizkerara arrotza da. ETBn ere oso saio gutxitan egiten da, eta egia esan, penagarria da, euskarak duen altxorrik handienetakoa baita. Horrez gainera, hamahiru urteko bat ez da umea; zuzeneko saio batera deitzen du, urduri dago, eta horregatik, hitanoak konplizitate hori sortzen laguntzen du.

**Adar jotzailea bai, baina berez lotsatia omen zara...**

Hala da. Kamera aurrean lotsa galtzen dut, hizketan apartekoa naiz, baina kamera atzean... Lankideekin afariren bat izan dudana bakoitzean, oso soso naizela esaten didate.

**Telebistaren bidez, gehienetan bihurriarena eginez, ospetsu egin zara... Zer moduzkoa da famatu izatea?**

Gu ez gara famatuak, ezagunak baizik. Niri telebistaren kontu honetan gehien gustatzen zaidana lankideekin daukadan harremana da, lagun mordoa egin dut. Nik uste dut ikusleentzat etxekoa naizela; hori bai, kalera irteten zarenean lan egiten jarraitzen duzu.

**Ikasle fina izan omen zara beti. Orain, telebistari lotutako zerbaitek ikasten ari zara, ezta?**

Ikusentzunezko Komunikazioan bigarren ikasturtea hasiko dut aurten Opus Dei-ren Unibertsitatean, Iruñean. Aurretik Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza ikasten egon nintzen bi urtez, baina telebistako lana gehiago gustatzen zitzaidala-eta, ikasketak lagatzea erabaki nuen. Gero, beharbada, komunikazio enpresen gestioari buruzko masterren bat-edo egingo dut. Telebistan jendea zurekin aspertzen denean kamera atzean lan egitera jo behar duzu. Nik orain itzal bat daukat, baina lau zapabost urte barru... Etorkezunean *Bertatik Bertara*-ren antzeko saio bat, esate baterako, oso gustura aurkeztuko nuke.

**ETB 1eko *Betizuzenean* saioaren barruan aurkezle izango zaitugu aurten ere...**

*Show BT* tartearen aurkezle izango naiz. Astelehenetik ostegunera artista gazteei buruzko bideoak erakutsiko ditugu. Irudi horietan gaztetxoak dantzan, kantuan eta haien bizimodua ere ikusi ahal izango dugu. Nolabait esateko, haien bizimodua ikusi ahal izango dugu. Ostiraletan, berriz, zuzeneko saioan izango naiz, eta artista gazteak ere plaitoan bertan izango dira.

**Nerea Pikabea Amundarain**

**Kazetaria**



✉ **ETBko betiko kontuak**

Udazkena, ikasturte berria eta euskal telebistan programazio “berria”. Berria? Zer aldatu da ba?


A! Bai! Amaitu dira udako jaiak eta orain ez dago gauetako programa “fresko” horiek jasan beharrik, orain neguko freskura berotzeko: kirola, marrazkiak eta Goenkale. Eta besterik ez. Ikusleek agintzen omen dute. Audientziak gora eta behera, ba... niri ez dit sekula inork galdetu zer gustatzen zaidan, eta uste dut telebista publiko batek apustu ausartagoak egin beharko lituzkeela, ez lukeela itsu-itsuan jarraitu beharko audientzien kontua, horretarako daude kate pribatuak. Horiek argi daukate: zaborra eman, ikusleek gora egiten badute, zabor gehiago eman eta kitto! Baina hemen? Kate publiko batean?

Euskal telebistak justu kontrakoa egin behar luke, zaborra guzti hori gorroto duen jendea erakartzeko programazioa egin. Nola? Ba... prime-time horretan honelakoak jarrita: adibidez –asteen egun batzuetan behintzat– zineaz programa bat, –ondoren filma, jakina! iragarkirik gabe, eta aurreko asteen gaztelaniaz bota ez dutena bada askoz hobeto–; edo blue planet-en antzeko dokumental sailen bat; edo liburu salduenez programa laburren bat, gomendio eta guzti; edo bidaiei buruzko programaren bat; edo musikaz zerbait, baina bariatua (bideoak, koroak, kontzertuak...) eta ez lau ordu ez dakit nongo trikiti txapelketa ematen! Dirua behar dela filmak bikoizteko? Ba, ez bikoizku. Jarri azpтитuloak eta aurrera: azpтитuloak erabiltzen dira Europako gainerako herri txikietan ere.

Guzti honen ondoan futbola, pelota eta marrazkiak ere jarri behar direla? Bai. Baina, behintzat, programazioa ni bezalakoentzat erakargarriagoa izango da, eta ez dut tele cinco ikusiko.

Tristea da Euskal Herri osorako telebista euskaldun bakarra hain exkaxa izatea.

**Naikari Telletxea**



**JOXERRA INTERÍNEZ**

BEHIN BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com




Zuen iritziak, proposamenak, iradokizunak... bidaltzeko, idatz ezazue helbide honetara: [webivap@ivap.es](mailto:webivap@ivap.es). Mezuarekin batera, izen-abizenak eta ENA adierazi beharko dituzue. Toki-arazorik izanez gero, ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak eskubide osoa izango du testuak laburtzeko.

# Euskara, Internet eta teknologiak

Kulturaren Plan Estrategikoa egiten dihardu Eusko Jaurlaritzak, eta haren barruan, badago Kultura Digitalari eskainitako tarte bat; txosten, ildo eta lantalde propioarekin (lantalde horretantxe nago neu). Eztabaidagune horretan zeuden batzuek, bilera batean, kritikatu egin zuten, Kultura Digitalaz eztabaidatzeko orduan, txosten nagusia euskararen inguruan zentratuegia ez ote zegoen. Alboko kontu bat zela euskara, beharbada, garrantzizkoa jakina, baina Kultura Digitala edo teknologien eragin kulturalak euskararen auziaz aparteko gauza bat zela, esparru zabalagoa hartzen zuela defendatzen zuten partaide kritiko horiek.

Eta erantzun egin nuen. Euskararentzako teknologien aipamena ez zegoen, inolaz ere ez, tokiz kanpo txosten horretan. Pertinentzia osoarekin zegoen, bai horixe. Eta ikuspegi hori defendatu nuen. Euskararentzako baliabideak garatuz, bate-tik, geure eginbehar ezinbestekoari heltzen diogu (geuk ez badugu egiten, nork egingo du?), beste ezer baino gehiago, hizkuntzaren teknologiak garatzen ditugu. Euskararentzako



garapena egiten Interneten, esparru eleanitz global baterako behar ditugun trebeziak, tresnak eta prozedurak ikasten ditugu. Adibidez, neuk, lagun batzuekin, duela urte batzuk, euskarazko bilatzaile bat aurrekonturik gabe eta gasturik gabe egiteko modua ikusi, eta sortu egin genuen *Aurki.com* Interneteko direktorio euskalduna. Bilatzaile bat euskaraz. Horixe egin genuen, eta zertxobait ikasi genuen. Euskara ez genuen ikasi, ze euskara bagenekien. Baina bilatzaile bat nola egiten den, nola funtzionatzen duen, eta Interneteko kontuez, ba, kontxo, zeozer zeozer geratu zitzaigun... Geure xumean, Interneten inguruko "jakintza" apur bat sortu genuen. Eta hartatik, *Aurki* bultzatu zuen *Eibar.org* internauta elkartetik, lagun batzuk elkarrekin konjuratu eta enpresa sortzera abiatu ginen. Horretan gabiltza. Esperientzia lokal bat, geure hizkuntzaren inguruan sortua eta garatua, jakintza eta enpresa sortzeko erabilia.

Euskara, Interneten eta teknologian, aukera bat da. Euskara baino gehiago, euskaldunen posizioa: elebidunak gara, gutxienik. Euskal Herria esparru eleanitza da. Giltzarri bat dugu hor, ezagutza eta esperientzia sortzeko, kanpora begira, 21. mendean industria estrategikoa den esparruan: hizkuntzaren teknologietan.

## Soft librea, euskara teknologietan garatzeko

Eta hortaz, badago zereginik. Aukerak daude, aukera globalak, munduan lehiatzeko geure esperientziatik abiatuta. Baina horretarako, kontxo!, lana egin behar dugu. Eta egiteko asko daukagu. Eduki sorkuntzan, edo euskarazko corpusen bilketan, adibidez.

Bereziki, administrazioek tresna teknologikoak garatzen bultzada eman beharko luketela uste dut. Softwarea behar dugu euskaraz: erabiltzaileentzat, batetik, eta baita oro har webgune euskaldunak edo/eta eleanitzak sortzeko (garatzaileentzat, alegia). Eta behar dugu software erabilgarria, batek garatzen duena besteok ere aprobetxatzeko.

Horretarako giltza da software librea, dudarik gabe. Eusko Legebiltzarra ere ohartu da honetaz, eta aho batez (Alderdi Popularretik Batasunaraino, bai!) onartu da software librearen aldeko mozio bat, zeinak, besteak beste, aginte publikoek gomendatzen dien software mota honen alde egitea lehiaketa eta lizitazio publikoetan. Gainera, software librea da garapen teknologikoaren ezagutza-kapitala eta esperientzia profesionala Euskal Herrian garatzeko klabea, eta ez Redmond edo Stuttgarten...

Hala ere, Legebiltzarrak espreski deialdietan software librea kontuan har zedin eskatu arren, behin eta berriro, harrezkero publikatzen diren lizitazio askotan, ez bakarrik ez dago soft librearen alde Legebiltzarrak eskatutako diskriminazio positiboa, konkurrentzia librerik ere ez dago: esaten dizute IBM-ren edo Oracle-ren edo Microsoft-en produktu jakin baten ganean egin behar dela garapena, eta akabo. Ikusi egin beharko litzateke, gainera, ea ez ote den horrela hausten Espainiako Administrazio Publikoen Kontratuaren Legea (LCAP), zeinean debekatua dagoen marka zehatz batzuk aipatzea lizitazioen plegu teknikoetan, marka horiekin beste produktu eta hornitzaile batzuen konkurrentzia *de facto* eragozten bada. Eta software jabeduna duen produktu horietan, euskara nola moldatzen da? IBM, Microsoft edo jabearen gurarien arabera (inolaz ere ez, normalean), softwarearen kodeak esku hartzea eta egokitzapenak egitea (esate baterako, demagun, euskararen deklinabidea kontuan har dadin bilaketetan) haien esku baitago, eta ez bezeroaren esku.

**Luistxo Fernandez**  
[www.codesyntax.com](http://www.codesyntax.com)

# NOMINA

**Aldizkariaren azken zenbakian gure irakurle batek, Ander Arrizabalagak, gutun bat idatzi zuen honako hau proposatzen: alegia, guk nominari buruzko artikulu bat egiteko. Eta hala saiatu gara, behintzat. Ur handitan sartu gabe eta esparrua nolabait mugatu nahian, karrerako funtzionarioen ordainketa-agiriari helduko diogu (hitz batzuk esango ditugu, ordea, bitartekoen eta lan-kontratukoek nominei buruz).**

**Erakunde bakoitzak bere ordainketa-agiria dauka; dena dela, esan liteke, oker handirik gabe, nomina batek lau atal edo eduki nagusi dituena: 1.a goiburua, 2.a ordainketa, 3.a atxikipenak eta kenkariak, eta, azkenik, 4.a, eskuratzekoa guztira. Ikus ditza-gun banan-banan:**

## 1. GOIBURUA

Atal honetan enpresaren, langilearen eta lanpostuaren datuak emateaz gain, kobratutakoa zein hilabeteri dagokion adierazi behar da.

## 2. ORDAINKETAK

Langileari zenbat eta zer dela-eta ordaintzen zaion jasotzen da hemen. Ordainketak hiru motatakoak izan daitezke: oinarrikoak, osagarriak eta gratifikazioak.

### 2.1. Oinarriko ordainketak

#### 2.1.1. Soldata

Estatuko Aurrekontu Orokorretan zehazten da zein kopuru dagokion titulazio-talde bakoitzari (A, B, C, D, E). Kopuru hori bera da Estatuko funtzionario guztientzat.

#### 2.1.2. Antzinasuna

Aurrekoan bezala, Estatuko Aurrekontu Orokorretan erabakitzen da zenbatekoa den titulazio-talde bakoitzak kobratu beharreko hiru urtekoa.

### 2.2. Ordainketa osagarriak

#### 2.2.1. Destino-osagarria

Lanpostu bakoitzak maila bat edo beste bat dauka (18, 22, 26...), lanpostu horren zenbait ezaugarriren arabera: prestakuntza, esperientzia, besteekiko harremanak, ekimena eta autonomia, etab. Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuetan urtero zehazten da zein den maila horietako bakoitzari dagokion destino-osagarria. Langileak diru hori kobratuko du, ez bada gertatzen beste maila handiago bat finkatuta daukala; kasu horretan, bietan handiena eskuratuko du.

#### 2.2.2. Osagarri berezia

Administrazio bakoitzak (udalak, aldundiak...) erabakitzen du zein izan behar den lanpostu bakoitzari dagokion ordainketa, beti ere lanpostu horren berezitasun batzuk kontuan izanik (erantzukizuna, ordutegia, bateraezintasuna, lanpostua nekeza edo arriskutsua izatea, etab.).

#### 2.2.3. Produktibitatea

Besteak beste, honako hauek saritzeko jarrita dago: etekin berezia, ohiz kanpoko jarduna, eta funtzionarioak bere lanpostuan jartzen duen ardura eta ekimena.

### 2.3. Gratifikazioak

Diru-kopuru hauek lanorduz kanpoko aparteko zerbitzuak ordaintzeko erabiltzen dira, eta ezin izan daitezke ez finkoak, ez eta aldizkakoak ere.

Badakigu orain zenbat eta zer dela-eta kobratu beharko lukeen funtzionarioak; beste kontu bat da benetan zenbat eskuratuko duen azkenean; izan ere, diru horri kopuru batzuk kendu edo atxiki egin behar zaizkio, zenbait kontzeptu direla-eta.

## 3. ATXIKIPENAK ETA KENKARIAK

### 3.1. Atxikipenak

#### 3.1.1. PFEZ

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak ehuneko bat edo beste ezarrita dauka, langilearen ordainketen eta familia egoeraren arabera (seme-alaben kopurua).

### 3.2. Kenkariak

Langileak Gizarte Segurantzaren, langabeziaren eta lanbide-heziketaren kuotak ordaindu behar ditu; kontzeptu horietako bakoitzak ehuneko finko bat dauka. Hona hemen:

**3.2.1. Gizarte Segurantza:** %4,70.

**3.2.2. Langabezia:** % 1,55 (karrerako funtzionarioek ez dute hau ordaintzen; bai, ordea, bitarteko funtzionarioek).

**3.2.3. Lanbide-heziketa:** %0,10.

Nolanahi ere, gogoan izan kotizazio-talde bakoitzak gehieneko muga batzuk dituela; esan nahi baita, jasotako ordainketak edozein izanda ere, langileak muga horien gainetik ez duela pagatu behar.

Ondorengo adibidean garbi ikusten da hori: langilearen ordainketaren oinarria 3.632,33€koa da, baina bere kotizazio-taldeari dagokion gehieneko muga 2.652€koa denez, hori da kenkaria egiteko ezartzen zaion kopurua.

### 3.3. Bestelakoak

Beste askoren artean, bi hauek sartzen dira hemen: Elkarkidetzak eta aurrerakinak itzultzea.

#### 4. ESKURATZEKOA, GUZTIRA

Garbi dago zer falta zaigun orain: ordainketei kenkariak eta atxikipenak kendu, eta horixe da langileak benetan kobratzen duena. Bukatzeko, pare bat kontu. Lehen: nominan, batzuetan, berez ordainketak ez diren hainbat kontu jasotzen dira (dieta, bidaiak, gas-tuak, e.a.). Bigarrena: gogoratu lan-kontratuko langileek ez diotela zertan jarraitu eskema orokor honi; izan ere, lan-arloko legeriaren menpe egoteaz gain, beren konbenio berezia dute.

ENPRESA		
Izena	IFZ	Enpresa-zenbakia
Eusko Jaurlaritza	Q2040001F	01 / 20507 / 67

LANGILEA		
Izen-abizenak	ENA	Gizarte Segurantzako afiliazio-zenb.
Angel Imaz Buruaga	16354798-W	01 / 21607 / 67
Lan-harremana	Titulazio-taldea	Lan-egoera
Karrerako funtzionarioa	A	Jardunean
Lanaldia	Finkatutako maila	Antzintasuna
%100	25	4 hirurteko

LANPOSTUA		
Izena	Kodea	Kotizazio-taldea
Itzultzaile arduraduna	44	01
Destino-osagarriaren maila	Osagarri berezia (€/urte)	
25	20.000	

**KITAPENALDIA**  
2003ko ABUZTUAren 1etik 31ra

ORDAINKETAK		
	Oinarria	Zenbatekoa (€)
Oinarrizkoak	30 egun	1.028,05
Soldata	30 egun	277,00
Antzintasuna		
Osagarriak	30 egun	663,97
Destino-osagarria	30 egun	1.666,66
Osagarri berezia		36,65
Produktibitatea		
Gratifikazioak	---	---
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.632,33</b>

ATXIPENAK ETA KENKARIAK			
	Oinarria (€)	Kenkaria (%)	Zenbatekoa (€)
Atxikipenak	3.632,33	%21,00	762,78
PFEZ (Errenta Aitorpena)			
Kenkariak (kuotak)	2.652,00	%4,70	124,64
Gizarte Segurantza			
Langabezia eta lanbide heziketa	2.652,00	%0,10	2,65
Bestelakoak	---	---	---
<b>GUZTIRA</b>			<b>890,07</b>

<b>ESKURATZEKOA, GUZTIRA</b> (3.632,33 - 890,07)	<b>2.742,26 €</b>
---	-------------------

**Joseba Lozano**  
HAEEko administrazioko hizkeraren arduraduna



### Mundua online

#### Mozilla nabigatzailea euskaraz dago

Hainbat hilabetetan lanean aritu ondoren, librezale.org informatikazale-talde euskaldunak aurrerapauso nabarmena lortu du Mozilla Euskaraz proiektuan. Izan ere, abuztuaren 8az geroztik, Mozilla.org komunitateak ofizialtzat jo du nabigatzaile librearen euskarazko bertsioa.

Mozilla.org komunitatea Mozilla nabigatzailea garatzeko ardura duen informatikari-taldea da. Mozilla kode irekiko programa da, hots, edozeinek hartu, kopiatu, eraldatu eta hobetu ahal du, nahi izanez gero, haren kodeak ez baitu jabe zehatzik, eta horri esker zabalkunde handia lortu du. Plataforma informatiko guztietan erabil daiteke, eta munduko 98 hizkuntzatan eskura dezakegu.

Librezale.org taldeak nabigatzailearen 1.4 bertsioa euskaratu du, eta Mozilla Euskaraz proiektuak, azken kalitate kontrolak pasatu ondoren, mozilla.org-ek izatera ofiziala ematea lortu du. Horrenbestez, hemendik aurrera librezale.org-ren webguneaz gain, mozilla.org-ren webean ere deskargatu ahal izango dugu nabigatzaile euskalduna.

Helbide interesgarriak:

[www.librezale.org](http://www.librezale.org)

librezale.org taldearen webgunea

[www.mozilla.org](http://www.mozilla.org)

Mozilla komunitatearen web-orria

**Luis Elizondo**

[luis-elizondo@ivap.es](mailto:luis-elizondo@ivap.es)

## Hizking 21 egitasmoa

*Hizking 21: Hizkuntza Ingeniaritza XXI. Mendearen Atean* euskara arloan gaur egun egiten ari den egitasmo erraldoia dugu: euskaraz arituko diren prozesatze automatikorako sistemak eraikitzeke tresnak, baliabideak eta aurreaplikazioak sortu nahi dituzte, hau da, ordenagailuekin, etxetresna elektronikoekin... euskaraz hitz egiteko bideak zabalduko dizkigute. Horretarako indarrak batu behar, eta *Elhuyar* Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitateko *Ixa* eta *Aholab* taldeak eta *Vicomtech* eta *Robotiker* zentro teknologikoak elkartu dira proiektu honen inguruan. Ateratzen diren prototipoak hainbat eta hainbat eremutan aplikatu ahal izango dira gero: ofimatika, testuen zuzenketa, testuen itzulpena, grabazioen transkripzioak, ahozko mezuen kudeaketa... Egitasmo hau 2005. urtera arte luzatuko da, eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren *Etortek* Ikerkuntza Estrategikorako programaren babesa du.

## Euskal musika posta zerrenda

*Euskal musika* posta zerrenda sortu da musikazaleontzat. Gaiaren inguruan eztabaidatu, mp3ak trukatu, taldeak ezagutu, berriak bidali... nahi baduzu, hauxe duzu posta zerrendarik egokiena. Posta zerrenda honek ez du muga musikalik, eta estilo guztiak hartu nahi ditu: jazz, nu jazz, acid jazz, rock, ambient, reggae, hardcore, dub, jungle, folk, country, blues, metal, ska, hip-hop, minimal, rap, soul, dark...

Mezuak bidaltzeko, helbide hau erabili:

[euskalmusika@yahoogroups.com](mailto:euskalmusika@yahoogroups.com)

Eta bidaltzen diren mezuak zure posta elektronikokoan jasotzeko, izena eman helbide honetan (nahikoa da mezu hutsa bidaltzea):

[euskalmusika-subscribe@yahoogroups.com](mailto:euskalmusika-subscribe@yahoogroups.com)

Beste aukera bat daukazu eta da mezuak web bidez irakurtzea gune honetan:

<http://es.groups.yahoo.com/group/euskalmusika>

Gai honen inguruan azalpen gehiago nahi izanez gero, idatzi helbide honetara:

[euskal-musika@euskalerria.org](mailto:euskal-musika@euskalerria.org)

## Idazle Eskola

Euskal Idazleen Elkarteak Idazle Eskola jarri du abian, Bergarako UNED Ikastetxearekin eta Eusko Ikaskuntzako *Asmoz* fundazioarekin elkarlanean. Helburua euskaraz ondo eta ulergarri idazteko trebatzea da. Landuko diren idazketa-motak hauek dira: idazketa literarioa eta idazketa profesionala; eta ezaugarri nagusiak, honako hauek: ikasketa praktikoak izango dira; proposatzen den idazketa sortzailea da; idazle eskolako ikasleek egindako lanekin zenbait arlo euskalduntzeko bidea abiaraziko da; eta irakurle erreala kontuan hartuta egindako idazketa bultzatuko da. HAAEren dirulaguntza ezinbestekoa izan da Eskola martxan jartzeko.

## Euskal Abizenak, aldizkari berria

Lizardi Multimediak *Euskal Abizenak* izeneko aldizkaria plazaratu du. Iturbe, Esnaola, Garai... 40.000tik gora euskal abizen omen daude eta horien guztien berri emateko asmoa dute, etimologia, esanahi, grafia, aldaerak eta guzti. Bi hilabetetik behin izango duzue kioskoetan, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez; eta zenbaki bakoitzean berrogeita hamar bat abizen landuko dira. Ez da aukera makala gure abizenen atzean dagoen historia ezagutzeko. Nahi izanez gero, proiektuaren laguntzaile egin zaitezke eta aldizkaria etxean jaso.



# Lagun bati gertatutako laburmetraia egiazkoa

## 1. SEKUENTZIA. Leire eta Andoniren etxean. Bilbon. Egunargiz.

Leire telefonoz ari da Andoni bere senarrarekin. Alboan Igor semetxea du, hiru urtekoa:

- Lasai Andoni, ondo nago, oraindik ez dut ezer sentitzen.
- Bileran batera sartzera noa eta telefono higikorra amatu egin behar dut, horrexek kezkatzen nau.
- Zoaz lasai, ondo nago eta. Ez ahaztu neu ere medikua naizela.

Leirek telefonoa eskegitzen du eta istant horretan urak galten hasten da. Etxeko pasiloan barrena doa eta umekiaren burua irtetzen hasia dela sumatzen du. Zela edo hala komuneraino iritsi eta lurrean etzaten da. Umea egiten ari denez, oihuka hasten da.

— Laguntza! Socorro!

Inork ez du entzuten. Ordu horretan ez da inor egoten etxean. Semetxoari agintzen dio etxeko atea zabaldu eta oihuka hasteko. Semetxoak agindutakoa egiten du etxeko atetik eskaileretara. Une horretan, Jose Antonio auzokoa, 35 urtekoa, dator eskaileretan gora eta zer gertatzen den ikustera sartzen da. Igorren eskutxotik komuneraino doa eta eszena ikusten du: Leire odoletan, ume egin berria lurrean. Urduri jartzen da.

— ¿Zer egingo dut? –galdetzen du– ¿Zer egin dezaket?

## 2. SEKUENTZIA. Eskaileretan behera. Egunargiz.

Jose Antonio aztoratuta doa eskaileretan behera. Telefono higikorra ateratzen du poltsikotik, baina erori egiten zaio. Bateria alde batetik, telefonoa bestetik... oso urduri iristen da atarira, eta handik kalera.

— ¡Mecaguen la leche! –dio denbora guztian, eta gauza gogorragoak ere bai.

## 3. SEKUENTZIA. Bilboko kalea. Egunargiz.

Jose Antonio ataritik kalera irten da. Andre bat ikusten du. 60 urtekoa edo. Besotik heltzen dio berarekin hitz egiten hasteaz batera.

- Andrea, ¿umerik baduzu?
- Bai.
- Ba, zu zeu. Igo zaitez hirugarrenera. Han behar zaituzte eta.
- Baina, zer diozu?
- Ez dago denborarik galtzeko. Igo zaitez azkar.

Emakumea eskaileretan gora abiatzen den bitartean, Jose Antoniok ospitalera deitzen du telefonotik anbulantzia bat bidal dezaten.

## 4. SEKUENTZIA. Leireren etxean. Egunargiz.

Emakumea lotsaz bezala sartzen da etxean. “¡Soy una buena mujer!” egiten du oihi, inoren etxera sartzen ari den lapur batekin nahas ez dezaten. Komunera iristen denean, Leire

ikusten du, ume jaio berria gainean duela. Lurretik hitz egiten dio honek.

- Zoaz bigarren gelara, eskuinera, eta ekarri ohe azpian dauden kirol zapatilak.
- Zertarako?
- Egidazu kasu! –ez dauka astirik argibideetarako.

Leirek lurrean jarraitzen du emakumea noiz itzuliko zain. Luze egiten zaio itxaronaldia. Halako batean agertzen da emakumea eskuan zapatilak dakartzala. Velcroz ixten diren horietakoak dira.

— Horiek ez! –esaten dio Leirek– lokarridunak!

Eta berriro geratzen da zain emakumeak zapatila lokarridunak ekarri artean. Gero bi lekutan lotzen du lokarriekin zilbor-hestea eta emakumeari esaten dio erditik mozteko. Halaxe egiten du honek, guraize batzuek erabiliz.

## 5. SEKUENTZIA. Kalean (atarian). Egunargiz.

Anbulantzia iritsi da. Ohetxea ateratzen ari dira. Une horretan Garbiñe ere iristen da, Leireren amaginarreba da. Jose Antoniok zer gertatzen ari den kontatzen dio eta, blaut!, mareatuta erortzen da lurrera. Anbulantziakoek ez dute beste erremediorik: mareatutakoa daroate ospitalera sirena eta guzti. Jose Antoniok bigarren anbulantzia bati deitzen dio.

## 6. SEKUENTZIA. Leire, andrea, Igor eta Maddi, jaio berria, komunean oraindik.

Andrea– Ume ederra da gero!

Leire– Bai, halaxe da.

Igor– Amatxo, Maddi ez da aita xorena eta zurea. Maddi zurea eta nirea da!

Irri egiten dute denek.

## 7. SEKUENTZIA. Kalean (atarian) Egun argiz.

Bigarren anbulantzia iritsi da eta, azkenean, badaramatzate Leire eta Maddi. Igor, Jose Antoniorekin gelditzen da. Lasaitu ederra hartzen du azken honek.

## 8. SEKUENTZIA. Etxean. Egunargiz.

Andoni senarra iristen da eta bere etxeko atea erdi zabalik aurkitzen duenean, gauza arraroren bat gertatzen dela nabaritzen du. Ez du inor ikusten. Leire! Leire! Egiten du oihi eta, halako batean, komuneraino iristen da. Han andre ezezagun bat ikusten du.

— ¡Soy una buena mujer! –esaten dio behin eta berriz, gaizkile batekin nahas ez dezan.

Emakumea lurra garbitzen ari da, fregona batez.

THE END

Hasier Etxeberria  
Idazlea



## Francesco Cossiga, Italiako presidente ohia:

**“Jose Maria Aznarren ondoren okerragorik zer egon daitekeen ez zait bururatzen”**

Francesco Cossiga sardiniarra da jaiotzez. Ibilbide politiko oparoa izan du kristau demokraziaren eskutik: Ministroen Kontseiluko presidentea izan zen, Senatukoa ere bai bi urtez, eta Italiako presidentea 1985etik 1992ra bitartean. 1992az geroztik, biziarteko senataria da. Politikan aritzeaz gain, Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea ere izan da. Politikari buruzko hainbat liburu idatzi ditu, eta horietako bat orain dela gutxi eman du argitara: *Per carita di patria* (Aberriarekiko maitasunagatik).

Euskal Herriarekiko sentsibilitate berezia du; maiz bisitatu ditu hemengo lurrak, eta sarritan elkartu da hemengo politikariek. Duela hiru urte, Sabino Arana Fundazioak *Euskaldunen lagun onenari* saria eman zion. Carlo Tamburri (Italiak Iruñean duen kontsulari) zor diogu Cossigari egindako elkarrizketa hau.

### Euskal Herriko egoera

**Martxoaren 28an Espainiako Epaitegi Gorenak Batasuna, Euskal Herritarrok eta Herri Batasuna legez kanpo utziko zituen epaiaren berri eman, eta haien aktibitate guztiak bertan behera uzteko agindu zuen. Aldi berean, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionaleko epaileak auto baten berri eman zuen, Batasunaren aktibitate guztiak eteteko agindua emanaz eta haien egoitza guztiak itxiaraziz. Talde horretako kide batzuekin harreman zuzena izan duzu. Zer irizten diozu talde hori legez kanpo uzteari eta ekainaren 22an onartutako Alderdien Lege berriari?**

Ahal izan dudan moduan, harremanetan egon naiz etengabe euskal alderdi abertzaleetako buruekin, Herri Batasuna barne; eta, “ahal izan dudan moduan” diot, izan ere Madrileko Gobernuaren segurtasun zerbitzuetako espioitza politikoa beti baldintzatu ditu harreman horiek. Nire ustez, ekainaren 22an onartutako Alderdien Lege berriak Espainiako Estatuko herritarren eskubide zibil eta politikoa urratzen ditu, eta gainera, agerian uzten du Madrileko Gobernuaren izaera frankista.

1998ko uztailaren 15ean Euskal Herriko egunkari erakusgarrienetarikoa bat eta haren irrati emandegia, *Egin* alegia, ixteko agindua eman zuen auto baten bidez Garzon epaileak. Bost urte geroago, 2003ko otsailaren 20an, Juan del Olmo epaileak euskaraz kaleratzen zen egunkari bakarra, *Euskaldunon Egunkaria*, ixteko agindu zuen, “ustez, ETA erakundearen proiektu terrorista

baten aurrean egon gintezkeela” argudiatuz... Bi kasuetan adierazpen askatasunaren aldeko aldarriak ugari entzun dira...

Garzon epailea benetako faxistatzat izan dut beti, eta argi dago haren erabakiek nabarmen urratzen dituztela gizabanako erantzukizunaren eta prentsa askatasunaren printzipioak. Gertatutakoa jakin bezain laster, handik eta hemendik mugitu nintzen, besterik ez bada, atxilotutako apaiza aske utzi zezaten.

**Guardia Zibilaren eskuetan egun batzuk egin ondoren, Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*-ko zuzen-**

**dariak “inpunitate osoz” torturatu eta “saguen gisan” tratatu zutela salatzen. Sarritan egin dira horrelako salaketak Espainiako Estatuan. Askatasun eta Giza Eskubideen garaian bizi garenez, zer ari da gertatzen?**

**“Ez dut uste Madrileko gobernu frankista eta euskal alderdi sozialista Ibarretxeren Plaña eztabaidatzeko prest egongo direnik”**

Ez ninduke batere harrituko Martxelo Otamendik, itxitako egunkariko zuzendariak, Espainiako Estatuko poliziaren torturak eta saguen gisako tratua jasan izanak. Trantsizio garaiko gobernuko gazte frankista ohiak, gobernu sozialistak eta Juan Carlos errege ausarta gogotik ahalegindu diren arren, Espainiak ez du oraindik orrialdea pasatu, eta garbi dago bere klase politikoa eta administrazioa izpirituz faxistaz kutsaturik daudela: ikusi besterik ez da azkenaldian gertatutakoak.

**Euskal preso politikoen egoera erantsi behar zaio horri. Duela gutxi, presoan egoera okertuko duen lege berri bat onartu da. Horren ondorioz, presoan sakabanaketak bere horretan dirau; zigorraren hiru laurdenak bete dituzten 99 preso kalean egon beharrean, giltzapean daude... Hori guztia ez al doa Zuzenbide Estatuaren aurka?**

Ez dago zalantzarik preso politikoen sakabanaketa –presoak eta haien familiak modu psikologikoan eta moralean torturatzeko berez egina– Zuzenbide Estatuaren aurka joateaz gain, gizatasunaren oinarriko printzipioen aurka doala.

**Pasa den hilaren 26an Juan Jose Ibarretxe lehendakariak Elkarbizitzarako Proposamena aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean. Euskal gizartean herri kontsulta bat egingo dela ere adierazi du. Euskal gatazka behin betiko konpontzeko bidea izan ote daiteke proposamen hori?**

Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariak elkarbizitzarako aurkeztutako proposamena irakurri dut, eta erabat sinesgarria eta zuhurra dela iruditzen zait: moderatuegia dela esango nuke. Hori horrela izan arren, ez dut uste Madrileko gobernu frankistak eta haren gurditik tiratzen duten euskal alderdi sozialistako lagunak eztabaidatzeko prest egongo direnik.

## **Europako Konstituzioa, Italia, eta beste**

**Europako Batasuna osatzen duten herrialdeak Europako Konstituzioa egiteko zirriborroa eztabaidatzen ari dira. Zein leku izango dute herriek eta Europako nazioek Konstituzio horretan? Zein egoeratan dago Euskadi European?**

Europako Batasuneko konstituzio berrirako tratatuaren zirriborroan herriek eta Europako nazioek –herri gutxituek eta estaturik gabeko nazioek bereziki– toki urria dute Bruselako ekonomiaren, finantzen eta teknokraziaren botere indartsuen aldean. Euskal Herriak European duen egoera negargarria da, eta horretan bi errudun nagusi daude: alde batetik, ezkerreko alderdiak, besteen jokabideak onartzeko prest dagoen Europako Alderdi Sozialistaren eraginpean baitaude; eta bestetik, Europako Alderdi Popularra, errotik aldatua, bere baitan ohitura demokratikorik gabeko Espainiako Alderdi Popularra bezalako alderdi bat onartu zuenez geroztik.

**Silvio Berlusconi lehen ministroak polemika izugarria sortu du Italian azken aldirian. Estatuko goi funtzionarioen aurkako kausa judizialak eteteko araudi bat onartu berri da Italiako Parlamentuan. Ustez epai-leak erosi izana leporatzen diote Berlusconi; izan ere, araudi berriari esker ezingo dute epaitu**



**Berlusconi. Horrek Italiaren irudia kaltetu dezakeela uste al duzu?**

Silvio Berlusconi lehen ministroaren alde egindako lege bat, konstituzioaren aurkako jotzen dudana lege bat, ez dut uste Italiaren irudia kaltetzera helduko denik, zeren lege hori Italiako Errepublikako presidente Carlo Azeglio Ciampiren mesederako ere egina izan da.

**1928ko uztailaren 26an, Sardinian, Sassari hain zuzen, jaio zinen. Sardinian independentzia aldarrikapenak egin izan dira Italiarengandik askatzeko. Zein da momentu honetan zure herriak bizi duen egoera?**

Sardiniako herria saiatzen ari da une honetan bere nortasun espeziakoaren erro linguistikoak, historikoak eta kulturalak berriro aurkitzen; horiek gabe, ez du inongo baliorik Errepublikako Konstituzioak aitortu dion autonomia instituzionalak.

**Italiako Errepublikako presidente izan zara (1985-1992). José María Aznar bere agintaldiaren azken hilabeteetan sartu da dagoeneko. Eta orain bere alderdiak, Alderdi Popularrak, Mariano Rajoy izendatu du idazkari nagusi, eta ondorioz, bera izango da Alderdi Popularraren lehen hautagaia martxoaren 7ko hauteskundeetan. Zer iruditzen zaizu PPK Rajoy aukeratu izana hauteskundeetarako?**

Espainian ditudan lagun demokratek esan didatenez, Mariano Rajoy Alderdi Popularraren idazkari nagusiak eta Espainiako hurrengo hauteskunde politikoetarako hautagaia Espainiako garapen demokratikorako itxaropen pixka bat eskaintzen du. Bestalde, Jose Maria Aznarren ondoren okerragorik zer egon daitekeen ez zait bururatzen.

**Nerea Pikabea  
Kazetaria**

# Kalitatezko testuak eta zuzenketa didaktikoa

**Aurtengo maiatzean gure hizkuntzarekin lotura zuzena izan duen ikastaroa eman dugu HABEn.**

## Arrazoiak

HABeko teknikariak gara, eta lanean makina bat testu sortu, itzuli, txukundu eta zuzendu behar izaten ditugu. Ez gara adituak, arituak baizik, eta pixkanaka-pixkanaka eskarmentu pittin bat bildu dugu urte hauetan guztietan. Egia esateko, gaia gustukoa dugu eta, neurri batean, kezka-iturri ere bai. Arretaz entzun, irakurri eta ikasten ditugu hainbat adituren esanak: Euskaltzaindia, Sarasola, Garzia, Zubimendi, Esnal, Petrirena, Hidalgo, Eizagirre, Cassany, etab.

Bestalde, konturatu gara informatika gero eta beharrezkoagoa dugula, nahitaezkoa –zuzen hitz eginda–, testuekin lan egin ahal izateko. Eta, era berean, sumatua genuen euskalduntze-alfabetatzeko profesionalak ere kezka eta interesbertsuak dituztela.

Horri guztiari, erantsi edozein irakaslek testuak sortu-itzuli-txukundu ez ezik, ikasleen testuak ere zuzendu behar izaten dituela. Hortaz, hortxe dugu beste gai potzolo bat: erroreen zuzenketa didaktikoa nola bideratu.

Horrela, bada, geure eskarmentuan oinarrituta, lau gai nagusi jorratu ditugu ikastaroan: hizkuntz kalitatea idatzian, itzulpengintza, informatika-baliabideak eta erroreen zuzenketa didaktikoa.

## Ikastaroa

Zuzen eta egoki idaztea –kalitatezko testuak sortzea, alegia– artea eta teknika da, eta, ondorioz, ez da zientzia zehatza. Bestalde, euskara-eskoletan testu txukunak behar ditugu, hau da, zuzenak eta egokiak. Horrela, bada, Euskaltzaindiaren arauen arabera izan ez ezik, ulertzeko errazak ere izan behar dute, beren funtzio komunikatiboa egoki bete dezaten.

Eta, egoki idazteko, mezua zehaztu egin behar da, lehentasunak antolatu, hitzak aukeratu, zuzen eta egoki adierazi, ulerterraz egin eta komunikazio eroso ziurtatu. Ez da lan-tegi samurra; oro har, idazkera ez dugulako behar bezala landua.

Gainera, Euskal Herrian testu asko eta asko erdaratik itzuliak izan ohi dira, eta, horregatik, itzulpena bideratzeko oinarritzko irizpideak ere landu ditugu ikastaroan: testuingurua zehaztearen beharrez jardun dugu, bitarteko egokiak baliatzeaz, lan-prozedura zedarritzeaz, terminologia egokia hautatzeaz, etab. Ildo horretan, baliabide informatiko batzuk ezagutu eta erabili ditugu: bilatzaileak, zuzentzaileak, hiztegiak...

Azkenik, zuzenketa didaktikoaren gainean egin dugu gogoeta: Nola zuzentzen dugu? Irakasleek ikasten al dute?... Zuzentzea eskoletako metodologi erronka garrantzizkoenetakoa bat izan ohi da.

Eta hori guztia esperientzia praktikoa eta aktiboetan oinarrituta gauzatu nahi izan dugu; hortaz, talde-lanean oinarritu dugu jardun praktikoa. Horrela, parte-hartzaileek aukera izan dute gaiok haien eskoletan bideratzen dituzten moduez hausnartzeko eta, ikastaroan egin dituzten jardueren bitartez, zenbait ondorio teoriko eta praktikoa ateratzeko.

Ikastaroa HABEren egoitzan dagoen ordenagailu-gelan eman dugu, informatikaren alderdia ere jorratzeko.


## Gogoeta

HABeko langileak garen neurrian, euskaltegietan gertatzen ari diren aldaketak gertu samarretik jarraitu ahal izateko aukera izan dugu. Garai batean, esate baterako, arbela eta errotuladorea erabiltzen genituen euskaltegietan, eta, horrekin batera, magnetofonia, hiztegi-pare bat, horma-irudi batzuk, etab. Gero etorri ziren telebista-gelak eta ordenagailuak, bideoak ikusteko eta administrazio-lanak egiteko. Era berean, Administrazioak horrela ezarrita, 2 eta 5 orduko ikastaroak nagusitu ziren.

Gaur egun, ordea, testuingurua aldatu egin da. Urteak dira metodologia didaktikoa hobetzeko ahaleginean murgilduta gabiltzana, urteak dira euskaltegiak bezeroei eskaintzen dizkieten zerbitzuak malgutzen eta aberasten ari direna eta, dagoeneko, urteak dira hainbat eginkizun berrietarako jauzia egin behar izan dutena makina bat irakaslek. Lanaren arlo pribatua edota publikoa euskalduntze-alfabetatzeko, irakasle mordo bat dabil gaur egun Administrazioan trebatzaile, edota eskolak enpresetan ematen, eta hori guztia ikasleen neurrirako bitartekoak eta saioak eskainiz –ezin ahaztu, gainera, auto-ikaskuntzaren eremuan egiten ari garen urratsak–.

Horiek horrela, euskaltegien etorkizuna jokoan dagoen une garrantzizko honetan, bide horretan ere sakondu beharko dugu hurrengo hilabete eta urteetan.

**Xabier Elortza  
Alex Mungia**  
HABE





# Munduko Euskal Giza Taldeak, pausu bat hurbilago

Euskal giza taldeek munduan zehar bizi dutenaren lekuko izan da Gasteiz aurtengo uztailean. Arabako hiriburu ospatutako Euskal Giza Taldeen Hirugarren Mundu Batzarrak 175 lagun bildu ditu, eta parte hartzaile eta antolatzaileen esanetan, aurrera pauso handiak egin dira bertan. 1995. urtean *Etorkizuna lantzen* izenburupean antolatutako batzarrak harremanak hasteko balio izan zuen; 1999.ean *Euskadi munduan eraikitzen* lelopean ospatutakoa trantsizioaren kongresua izan zen; aurtengoan aurrera egin da nabarmen. Alde batetik, adierazgarria da inoiz baino gazte eta emakume gehiagok parte hartu dutela; beste aldetik, jorratutako gai ei eta hartutako erabakiei dagokien ez ere jauzi handia egin da: besteak beste, lehen aldiz entzun ahal izan dira beste herri batzuetako diasporatako esperientziak.



Uztailean Gasteizen egin zen Euskal Giza Taldeen Hirugarren Mundu Batzarrera hurbildu zirenek egitaraua ekitaldiz beteta aurkitu zuten. Hitzaldi eta lan-talde ugari antolatu ziren, eta nahiz eta egitaraua nekagarria izan, parte hartzaileak pozik agertu ziren kongresuan entzun eta jasotakoarekin. Aurreko bi kongresuekin alderatuz gero, aurtengoan izan omen da ekarpen gehien egin duena.

Alde batetik, parte hartzaileei dagokienez, haizeberritu egin da, inoiz baino gazte eta emakume gehiagok parte hartu baitute. Munduko Euskal Giza Taldeen iraupena bermatzeko gazteen esku hartzea ezinbesteko baldintza dela kontuan izanik, urtero antolatzen den *Gaztemundu* izeneko programa aldi berean ospatzea erabaki zuen aurtun Eusko Jaurlaritzak. Eta erabaki honek isla izan zuen biltzarrean. *Gaztemundu* deialdia 1996. urtean hasi zen, eta horri esker, Euskal Etxeatako hogeitahi eta hogeitahi hamar urte bitarteko gazteak Euskal Herrira

etortzen dira urtero hamabost eguneko egonaldi batera. Euskal Herritik kanpo bizi diren gazte hauek beren gurasoen edo aitona-amonen herriarekin loturarik galdu ez dezaten, ikasketak hemen egiteko laguntzak eta bestelako ekimen batzuk ere jarri ditu abian Jaurlaritzak.

Kanpoan bizi diren euskaldunei buruzko datu zehatzak ezagutzeko aukera ere eman du Gasteizko Batzarrak, *Atzeus* izeneko datu biltzeta medio. Berrogeita hamar herrialde ezberdinetan bizi diren 12.780 euskalduni egindako inkesta oso tresna egokia izan da euskal diasporako biztanleen perfil hobeto ezagutzeko. *Atzeus* izeneko erregistroa Jaurlaritzak eratu du, hain zuzen ere jatorriz euskaldunak izanik atzerrian bizi diren pertsonen berri izateko eta laguntza programak errealitateari egokitzeko.

**“Lehen belaunaldiko emigrante euskaldun askok eutsi egin diote euskarari (%66); laugarren belaunaldikoek, berriz, galdu egin dute gure hizkuntza (%0,8)”**

## ■ Euskararen ezagutza, *Atzeus*-en arabera

Erregistro honen bitartez jakin ahal izan dugu, adibidez, diasporako euskaldun gehienak Amerikan bizi direla eta hauetatik %30 jaio direla Euskal Autonomia Erkidegoan. Lehenengo belaunaldiko inmigratuen batez besteko adina 64 urtetakoa da, eta hizkuntzari dagokionez, euskal diasporako kideen %7,1ek euskaraz “ondo” daki eta %13,6 mintzatzen da “zailtasunekin”. Inkestaren arabera, beraz, euskal diasporako hamar pertsonatik zortzik ez dakite euskaraz. Alde handiak daude, zentzu honetan, inmigratutako garaia-

ren arabera. Hortaz, emigratu zuten euskaldunen lehen belaunaldiko askok eutsi egin diote hizkuntzari (hauetako %66k hitz egiten dute); bigarren belaunaldikoen artean, guztien laurden batek daki euskaraz (%23k); eta hirugarren belaunalditik aurrera, dezente egiten du behera hizkuntzaren ezagutzak (hirugarren belaunaldietako %7k daki euskaraz eta laugarrenekoen artean %0,8k). Euskal diasporako kide gehienek gaztelania dute hitz egiteko hizkuntza nagusia.

### Lau urtetarako plan estrategikoa

Gasteizen egindako kongresuan, bestalde, Euskal Herritik kanpoko euskal giza taldeen etorkizunari begira, hurrengo lau urtetarako plan estrategikoa lantzeko erabakia hartu zen. Plana abian jartzeko orduan, erabakigarria izango da NABO (*North American Basque Organizations*) eta FEVA (*Federación de Entidades Vasco Argentinas*) erakundeen laguntza. Hurrengo urteetako lehentasuna plan estrategikoa lantzea izango da, eta honetan finkatu nahi diren eginkizunen artean bi azpimarratu daitezke, beste askoren artean: alde batetik, mundu osoan sakabanaturik dauden Euskal Etxeak euren inguruko gizarteari irekitzeko ahalegina egingo da; eta, bestalde, teknologia berrien erabilpena bultzatuko da, euskal nortasuna munduan barrena

barreiatu ahal izateko. Era horretara, euskalduntasuna zabaltzeko interneten erabilera erabakigarria dela jakinda, *on-line* komunitate baten proiektua aurkeztu zen Gasteizen. Proiektuaren zuzendaritza Eusko Ikaskuntzaren eskuetan egongo da (*Eusko media Fundazioa*-ren bitartez), eta horren helburua euskaldunen arteko loturak gehiago estutzea izango da.

Kongresuan, bestalde, *Uranzadi* izeneko bildumaren aurkezpena egin zen. Mundu osoko 20 adituk landu dute, eta 15 liburuki eta DVD batez osatua dago. *Uranzadi* artxiboan testigantza paregabeak bildu dira hainbat hamarkadatan mundu osoko diasporak izandako bizipenei buruz.

Eta Kongresuak aurkeztu dituen berritasunen artean, bestetik, lehen aldiz entzun dira beste diasporetakoen esperientziak. Razmik Panossian Armeniako diasporaz aritu zen; Patrick O'Sullivan Irlandako diasporaz; eta Alberto Spektorowsky juduen diasporaz. Beste herrialde batzuetako giza taldeetako esperientziak entzutea lagungarritzat jo zuten kongresuko partaideek.

Parte hartzaileek esandakoaren arabera, berritasun eta probetxuzko lanaren kongresua izan da aurtengoa, eta hurrengo kongresuan aurtengoan egindako lanen fruituak jasotzea espero dute munduan zehar sakabanatuta dauden euskal giza taldeetako kide guztiek.



**Josu Legarreta,**  
**Euskal Giza Taldeekiko**  
**Harremanetarako**  
**zuzendaria:**

## “Euskal Etxeek ateak ireki behar dizkiote inguruko gizarteari”

Euskal Etxeekin harremanak edukitzeaz arduratzen da Josu Legarreta 1986. urteaz geroztik. Munduan zehar sakabanatuta dauden euskal giza taldeak ondo ezagutzen ditu, urtero haiekin harreman zuzenak izateko bidaia ugari egin behar izaten baititu. 1994. urtean Euskal Etxeei buruzko Legea atera zenetik, kanpoko euskaldunak Euskal Herritik irten gabe ere ikusteko aukera izaten du, lau urterik behin Euskal Etxeen Nazioarteko Kongresua egitea erabaki baitzen orduan. Aurtengo uztailean egin da Gasteizen Nazioarteko Hirugarren Kongresua. Legarretak azaldutakoaren arabera, euskalduntasuna munduan zabaltze aldera teknologia berriak erabili eta Euskal Etxeak beren inguruko gizarteari irekitzeko beharrak ikusi dute bilkura honetan.

### **Zeintzuk izan dira Gasteizen uztailean egin den Euskal Giza Taldeen Hirugarren Mundu Batzarraren ekarpen nagusiak?**

Lehenago izan diren bi kongresuekin alderatuta, uztailean egin dugun honek berezitasun apartak izan ditu. Alde batetik, nazio guztietako ordezkariak aitortu dute beren identitate bikoitza: euskalduna eta bizi diren naziokoa, eta, beraz, bi herrialdeekiko konpromisoa dutela adierazi dute. Bestaldetik, mundu globalizatu honetan, datozen urteetarako Euskal Etxeen jokabidea haien inguruko gizarteari begirakoa izan behar duela uste dute, eta, hortaz, antolatzen dituzten egitarauak horri begira eratu behar direla pentsatzen dute. Asmo hori aurrera eramanez, Euskal Etxe bakoitzari eskatu zaio diagnostiko bat egiteko, eta datozen lau urteetarako plangintza bat lantzeko.

### **Atzeus izeneko datu bilketaren emaitzen bitartez jakin dugu kanpoan bizi diren euskaldunen hamar pertsonatik zortzik ez dakitela euskaraz. Belaunaldi berriek euskara galtzen badute, etorkizunik gertzen al zaio euskal identitateari gure mugetatik kanpo?**

Nazio baten nortasuna ez da neurtzen bere hizkuntzaren erabileraren arabera bakarrik. Beraz, gurean gertatzen ez dena ezin diegu eskatu atzerrian bizi direnei. Hala eta guztiz ere, Euskal Etxeetan ahalegin izugarria egiten ari dira euskarazko klaseak antolatzeko.

## Zer nolako plangintzak prestatu ditu Eusko Jaurlaritzak, belaunaldi berri horiek Euskal Herriarekin lotu ahal izateko?

Aurten bertan egitarau berezi batzuk ari gara martxan jartzen: alde batetik, Euskadin ikasketak egiteko beka deialdi bat eta, bestetik, oso egoera larrian daudentzako dirulaguntza deialdia. Jaurlaritzak lehenasuna ematen dio Euskal Etxeetako kide gazteen prestakuntzari, eta horretarako, laguntza ekonomikoak aurreikusten dira.

## 1994. urtean Euskal Etxeei buruzko Legea onartzean erabaki zen lau urterik behin batzar bat egitea. Inkomunikazio handia egon al da ordu arte Euskal Etxeen eta Euskal Herriaren artean?

Esango nuke ezetz. Ez da batere erraza 19 naziotan bizi diren euskaldun guztiak ondo informatuta izatea. Baina, egungo komunikabideekin, informazioa nahi duenak izaten du. *Euskal Etxeak* aldizkaria 25.000 familiak hartzen dute; *Euskal Etxeak* aldizkari birtuala 10.000 pertsona baino gehiagori bidaltzen zaio astero. Jasotzen ditugun kontsultak 24/48 orduko epean erantzuten dira. Nolanahi ere, horrek ez du esan nahi hainbat mila kilometrotara bizi denak informazio gehiago izateko egarririk ez duenik.

## Urantzadi bilduma aurkeztu berri duzue Gasteizko Batzarrean. Zer ekarpen egin du horrek?


Euskal diaspora ondoen ezagutzen duten ikerlariak William Douglas eta Gloria Toticagüena direla esan dezakegu. Horien iritziz, beste diasporadun herrietan ez da horrelako lan bildumarik argitaratu. Beraz, aitortu daiteke Eusko Jaurlaritza honetan ere aurrelaria izan dela. Bestalde, bilduma hau ez da bilduma itxia; horrenbestez, aurrerantzean ere ekingo diogu eginkizun honi, historiaren eduki dezente oraindik bildu gabe baitaude.

## Askotan bisitatu behar izaten dituzu Ameriketako Euskal Etxeak. Ez al dute bertan gehiegi idealizatu Euskal Herriaren irudia?

Herrimina duen edozeinek idealizatzen du bere jaioterria edo bere aurrekoena. Diasporadun herri guztietan gertatzen da hori, eta gurean ere bai. Horren aurrean, bertan bizi garenon eginkizuna izango da hobeto eta gehiago azaltzea gure gaurko herria nolakoa den.

## Europako beste hiri batzuetan ere sortu dira Euskal Etxeak. Euskaldunen emigrazioaren pendulua Ameriketatik Europara aldatzen ari al da?

Ez dut uste Europan emigrazio hitza erabili behar dugunik. Europan gaude eta europarrak gara.



## Zenbat euskaldun bizi dira Euskal Herritik kanpo (edo zenbat dituzue zenbatuta)? Eta zenbat Euskal Etxe daude?

Erantzuna ez da erraza: Euskal Etxeetan 18.000 bazkide dira; CERAn 34.000 lagun dira. Hortaz, atzerrian bizi diren euskaldun guztiak ez dira Euskal Etxeetako bazkide. Esan ere egiten da Argentinan bertan bakarrik 3.000.000 euskaldun baino gehiago bizi dela. Ez dago frogatuta; beraz, ezin da jakin zenbat diren.

## Zeintzuk dira etorkizunari begira finkatu dituzuen erronka nagusiak?

Datozen lau urteotarako asmo garrantzitsuenen artean, hauek aipatu dira kongresuan: Euskal Etxe bakoitzak bere diagnostikoa egitea, lau urterako plangintza bat lantzea, erakunde bakoitzak bere datu-basea gaurkotu eta kide berrien kopurua ugaritzea, inguruko gizarteari ateak irekitzea, eta euskalduntasuna munduari sendoago erakusteko teknologia berriak erabiltzea.

**Karmele Jaio**  
Kazetaria

# Herrien izenak eta amaierako artikulua (-a)

Herri batzuek berezkoa dute amaierako *-a* hori (ez da artikulua); eta, hortaz, ez dute inoiz galtzen:

*Donostia: Donostiak, Donostiari, Donostiaren, Donostian, Donostiatik, Donostiara, Donostiako...*

*Alegia: Alegiak, Alegiari, Alegiaren, Alegian, Alegiatik, Alegiara, Alegiako...*

Beste herri batzuen amaierako *-a* hori, berriz, artikulua da. Halakoetan, tokizko deklinabide kasuetan artikulua gordeko dute *non* kasua arte, gainerakoetan ez. Esaterako:

*Bizkaia: Bizkaiak, Bizkaiari, Bizkaiaren, Bizkaian (\*Bizkain), Bizkaitik, Bizkaira, Bizkaiko...*

*Forua: Foruak, Foruari, Foruaren, Foruan (\*Forun), Forutik, Forura, Foruko...*

Honako herriak Euskaltzaindiaren *Euskal Onomastikaren Datutegia*-n daude jasota; denek dute amaierako artikulua (*-a*):

Abaurregaina (Nafarroa)	Abaurregaineko, Abaurregainetik... / Abaurregainan
Abaurrepea (Nafarroa)	Abaurrepeko, Abaurrepetik... / Abaurrepean
Aguilar Kodeskoa(Nafarroa)	Aguilar Kodeskoko... / Aguilar Kodeskoan
Asparrena (Araba)	Asparreneko, Asparrenetik... / Asparrenan
Azkoitia (Gipuzkoa)	Azkoitiko, Azkoititik... / Azkoitian
Azpeitia (Gipuzkoa)	Azpeitiko, Azpeititik... / Azpeitian
Barrundia (Araba)	Barrundiko, Barrunditik... / Barrundian
Basaburua (Nafarroa)	Basaburuko, Basaburutik... / Basaburuan
Berriatua (Bizkaia)	Berriatuko, Berriatutik... / Berriatuan
Busturia (Bizkaia)	Busturiko, Busturitik... / Busturian
Elizagorria (Nafarroa)	Elizagorriko, Elizagorritik... / Elizagorrian
Ergoiena (Nafarroa)	Ergoieneko, Ergoienetik... / Ergoienan
Ermua (Bizkaia)	Ermuko, Ermutik... / Ermuan
Erriberabeitia (Araba)	Erriberabeitiko, Erriberabeititik... / Erriberabeitian
Erriberagoitia (Araba)	Erriberagoitiko, Erriberagoititik... / Erriberagoitian
Erromantzatua(Nafarroa)	Erromantzatuko, Erromantzatutik... / Erromantzatuan
Forua (Bizkaia)	Foruko, Forutik... / Foruan
Harana (Araba)	Haraneko, Haranetik... / Haranan
Hondarribia (Gipuzkoa)	Hondarribiko, Hondarribitik... / Hondarribian
Itzagaondoa (Nafarroa)	Itzagaondoko, Itzagaondotik... / Itzagaondoan
Iruñea (Nafarroa)	Iruñeko, Iruñetik... / Iruñean
Mallabia (Bizkaia)	Mallabiko, Mallabitik... / Mallabian
Mañaria (Bizkaia)	Mañariko, Mañaritik... / Mañarian
Markin-Etxebarria (Bizkaia)	Markin-Etxebarriko... / Markin-Etxebarrian
Mendigorria (Nafarroa)	Mendigorriko, Mendigorritik... / Mendigorrian
Olaberria (Gipuzkoa)	Olaberriko, Olaberritik... / Olaberrian
Olatzagutia(Nafarroa)	Olatzagutiko, Olatzagutitik... / Olatzagutian
Ospitalepea (Zuberoa)	Ospitalepeko, Ospitalepetik... / Ospitalepean
Otsagabia (Nafarroa)	Otsagabiko, Otsagabitik... / Otsagabian
Sarrikotapea (Zuberoa)	Sarrikotapeko, Sarrikotapetik... / Sarrikotapean
Urizaharra (Araba)	Urizaharreko, Urizaharretik... / Urizaharran
Zigoitia (Araba)	Zigoitiko, Zigoititik... / Zigoitian
Ziordia (Nafarroa)	Ziordiko, Ziorditik... / Ziordian
Zizur Nagusia (Nafarroa)	Zizur Nagusiko, Zizur Nagusitik... / Zizur Nagusian
Zizur Txikia (Nafarroa)	Zizur Txikiko, Zizur Txikitik... / Zizur Txikian

*Iruñea / Iruña* auziari dagokionez, ohar txiki bat. Euskaltzaindiak *Iruñea* forma onartu zuen, eta azkeneko *-a* hori artikulua denez, honela deklinatu beharko litzateke: *Iruñea, Iruñean, Iruñeko, Iruñetik, Iruñera...* Udalak, berriz, *Pamplona-Iruña* formaren alde egin zuen, eta horren arabera: *Iruña, Iruñako, Iruñan, Iruñatik, Iruñara...*

Azkenean, Euskaltzaindia, Iruñeko Udala eta Nafarroako Gobernuak bildu eta honako hau adostu dute:

Zigilu, kartel, seinale eta horrelakoetan: *Iruña* (Udalak hautatutakoa); gainerakoetan, Euskaltzaindiak hobetsitako formari jarraituko zaio: *Iruñeari, Iruñean, Iruñetik, Iruñera, Iruñearekin...*

**HAEeko Administrazio Hizkeraren Atala**



# Ipuin lehiaketena

**O**rain dela hiru urte hasi nintzen ipuin leihaketak irabazten. Parte hartu dudana ia guztiak irabazten, zehatzagoa izateko. Literaturzaletasunean betidanik kide dudana Gotzon harritzeraino irabazi ere. Ez zidan ezagutzen halako dohairik idazteko. Nik neuk ere, egia esan... Ikastetxean geundenean bidaliak genituen hainbat ipuin ezker-eskuin Gotzon eta biok, gehienetan zorte gehiegirik gabe. Eta zortea egon zen aldi bakanetan beti Gotzonen aldekoa izan zela ere aitortu beharra daukat. Bigarren sariren bat edo beste irabazi zuen berak. Nik, aldiz, beti pott. Eskuarki, nire ipuinak bereak baino gezagoak izaten ziren. Ez bide nuen ausardia nahikorik epaimahaiak lilurtzeko edo bederen limurtzeko. Idazkera ahula zen nirea –orain ondo ohartzen naiz horretaz–, bai idazkerari bai nerabiltzan gaiei zegokienean. Hortik bere harridura ipuin erotikoen lehiaketa hartan (irabazi nuen aurrenekoan) jasotako taloia eskuan nuela agertu nintzaionean Jaurilaritzako kultur zerbitzuko bulegokideon asteroko bilerara.

Gotzon eta bere emazte Rosa, zeina euskara irakasle zorrotz bezain estu horietakoa baitzen, hiriko jatetxerik garestiengan afaltzera gonbidatu nituen. Moskeo galanta beraiena. Mila galdera jeloskor nahiz sinisgogorrez eraso zidaten itsasoa ikusmiran zuen jatetxearen gela ederreneko mahaiaren inguruan hirurok eseri bezain laster. Nola ez, ipuinaren aldaki bat eraman nien, batak lehenik eta besteak ondoren, txintik atera gabe irakurri zutena. Ipuinaren kutsu misogino eta gordinak Rosaren emakume sentiberatasuna mindu omen zuen. Gotzon, berriz (aitortu ez zuen arren), ipuinaren kalitate ukaezinak mindu zuen. Egoera normalean gogorrakoa izango zen Gotzon-eta-Rosaren erreakzioa baina, jakina, halako afari bat eskaini nenez gero ez zuten adeitasunaren mugen barruan gelditu beste erremediorik izan.

Hortik gutxira, bulegotik hamaiketako kafetxoa hartzera joaten ginen tabernan geundela, ipuin fantastikoen lehiaketa irabazi nuela iragarri nion lankideari. Irudimen pobrea nuela leporatu ohi zidan Gotzonek ikastetxe garaiean. Elkarri « kritika eraikitzailea » egiteko ohitura hartua genuen ordu hartan, nahiz eta ia beti bera izan eztena sartzera ausartzen zen bakarra. Eta, egia esan, ez zitzaion arrazoirik falta geroztik nire gaztaroko narrazio haiek berrirakurriz konprobatu ahal izan dudanez. Aldi hartan ez nituen afaltzera gonbidatu. Zer arraio. Irabazitako dirua bidaiatzeko baztertu nuen. Aspalditik egin gogo nuen peregrinazioa burutu nuen San Petersburgera, Fedor Dostoievskiren apartamentua eta bide-nabar auzoa bisitatzeko asmoz. Aurkitu nuen postalik ederrera bidali nien Gotzon-eta-Rosari bertatik, hori bai. Ez dut uste grazia gehiegirik egin zienik jarri nuen azken esaldi hark : « hurrengo lehiaketetarako inspirazio bila hemengo gau zurietan murgildurik dabilen zuen adiskide Joxemanuren musuak ».

Hamargarren lehiaketa irabazi eta gutxira, argitaletxe zenbait nirekin kontaktuan jarri zen ipuin bilduma bat osatu eta kale-ratzeko proposamenarekin. Gotzon-eta-Rosari beraien iritzia eskatu nien, ez bainekien ondo zeinekin argitaratu. Esan gabe doa eman zidaten aholkuaren kontrako aukera egin nuela. Orduan Gotzon gaisotzen hasi zen. Egin berri nion iraina protestarik gabe irentsirik, apal-apal, aukeratu berri nuen argitaldariari bere ipuinak aurkeztuko ote nizkion galdetu zidan goiz batez, nire bulegora hurbilduta. Baietz esan nion gaisotasunak konkortzen hasitako bere bizkarrean txaplako adiskidetsu bat emanez. Noski, zaila izango zela ere gaineratu nuen, ez zela garai batean bezala euskaraz idatzitako oro kaleratzen. Ez zuen nire ironiari erantzuteko indarririk ere jada gizaok.

Hortik hiru hilabetera eraman zuen minbiziak. Rosari Gotzonen omenez idatzitako heriotzari buruzko ipuin berri bat, hau ere saritua, eskaini nion ohiko lore koroarekin batera.

Udaberri honetan atera den nire bilduman sartu dut ipuina, eskaintza eta guzti. Arrakasta izaten ari da liburua. Normala, ipuinek duten kalitatea ikusita. Eta ez diot hori harroa naizelako. Aitzitik, objektibotasun eta miresmen osoz diot ipuin bikainak direla nire bilduman agertzen direnak. Euskal idazlerik onenek idatzi dituztelako. Eta agian –nire buruari merezi duen apur hori behintzat eman diezaiodan–, gai jartzaile ona eta testu aukeratzailerik zein makilatzaile ona ere banaizelako.

Orain hiru urte, goizeroko kafetxoa hartzen ari ginela Gotzonek esku artean zuen lanaren berri eman zidanean, bururatu zitzaidan guztia. *Administrazioa euskaraz* aldizkariako euskal idazleak kontaktatzeko, ipuin baterako gaia jarri eta ordaintzeko ardura zeukan berak ordu hartan. Oporretan zegoen egun batean, bere bulegoan sartu eta miazten hasi nintzen. Idazleei bidali ohi zien gutun eredu eta ordainketak bideratu ahal izateko papereria ostu nituen, oraindik material horrekin zer egingo nuen zehatz-mehatz jakin gabe. Ramon Saizarbitoriari bidali nion lehen gutuna, aldizkariako ipuin erotikoa bat eskatuz, eta gezurra dirudien arren bidali egin zidan hortik hiru astera. Ipuin horrekin irabazi nuen lehendabiziko lehiaketa hura. Aldaketa txiki batzuei esker –pertsonei izenak, adibidez, edo ipuinaren titulua– laster bereganatzen nituen testuak eta ordainketarena ez zen arazo bat. Izan ere, idazleei agindutakoa beti ordaindu bainien, edozein zelarik ere aldizkariako argitalpena bertan behera utzi behar genuela justifikatzeko erabiltzen nuen aitzakia. Nolanahi ere, lehiaketei esker irabazitako dirutza idazleei bidaltzen niena baino askoz ere handiagoa zen. Geroztikoak ez du azalpenik behar.

**Ur Apalategi**  
**Idazlea**



# BI PUNTUAK

Artikulu hau *Galdezka*<sup>1</sup> liburutik ateratako kapitulu baten laburpena da; badakizu, beraz, nora jo, oso-osorik irakurri nahi baduzu.

Bi puntuak, nagusiki, enumerazioei sarrera egiteko erabiltzen dira; baina, ezin ditugu bazter utzi beste erabilera batzuk. Zergatik? Bada, estrategikoki oso erabilgarri zaizkigulako, joskera errazteko eta esaldi trinkoak arintzeko. Nolanahi ere, erabilera eta adibide horiek aztertu aurretik, jo dezagun definiziora: bi puntuak esaldia oraindik ez dela amaitu adierazten dute; hau da, ondoren badatorrela zerbait (azalpena, argibidea, hitz zerrenda edo antzekoren bat).

## ► Adibideak edo zerrendak emateko erabiltzen dira bi puntuak

Hauxe da bi puntuen erabilerarik ohikoena:

Hona hemen argitaratu berri den liburuan lantzen diren atalak: fonetika-aldaerak, deklinabidea, aditza, joskera eta hiztegia.

## ► Hitzez hitzeko aipamenei sarrera egiteko

Gogoratu bi gauza: aipamena kakotx artean idaztea, eta letra larriz hastea:

Honela esan zuen Umberto Eco *Administrazioa euskaraz* aldizkarian: "Gure garaian utopiak ez du ia tokirik".

Honaino, bi puntuen erabilerarik arruntenak; baina, badira beste batzuk. Horiek ulertzeko, kontu bat argitu beharra dago. Perpausak elkartzeko bi modu nagusi daude: lehena, erabiliena, juntagailuez (*eta, ala*) edo bestelako menderagailuez (*nahiz eta, ...-(e)lako, ...-(e)nean*) baliatzen da. Bide hori erabilita, honelako esaldiak ateratzen zaizkigu:

Ez gaitzen engaina; izan ere, oso ondo dakigu bera dela benetako protagonista.

Irakurleari lastoa eman beharrean, hobe dugu informazioa ondo aukeratzea.

Jakin beharra dago hizkuntzak ez direla, berez, hobeak edo txarragoak.


Bigarren modua ezberdina da: juntagailuak erabili beharrean, puntuazio-zeinuz baliatzen gara; hau da, lotura sintaktikoak (*baina, arren, -(e)la...*) deuseztatu egiten ditugu nolabait, eta haien orde, lotura semantikoak ezartzen. Puntuazio-zeinu gehienek balio dute honetarako, baina guztietan emankorrenak bi puntuak dira. Ikusi aurreko adibide horiek, bi puntuak erabilita:

Ez gaitzen engaina: oso ondo dakigu bera dela benetako protagonista.

Ez lastorik eman irakurleari: hobe dugu informazioa ondo aukeratzea.

Jakin ezazue: hizkuntzak ez dira, berez, hobeak edo txarragoak.

Ikusten duzunez, lotura sintaktikoak ez daude dagoeneko begien bistan; horien orde, bi puntu jarri ditu idazleak, eta irakurleari dagokio bi perpausen ertzen artean zubi logiko bat eraikitzea. Zer lortzen dugu horrekin? Bada, esaldiak sinplifikatzea.



Dena dela, gezurra badirudi ere, jendeak oso gutxi erabiltzen ditu bi puntuak; bakarrik idazle onek (Mitxelena, kasu) baliatzen dituzte behin eta berriro, estilo zuzenagoa eta adierazgarriagoa lortzeko, eta erritmo aldaketa sorrarazteko. Eta, Mitxelena aipatu dugunez, ikus ditzagun adibide batzuk (sailkatu, ezkutuan duten lotura sintaktikoaren araberako sailkatu ditugu):

### **Erlatibozko esaldiak:**

Iparaldeko gizon hezea zen: Hegoalde lehorrak ez zuen gehiegi kilikatzen.

### **Kausazkoak:**

Madariagak nonbait dioenez, ba omen dute elkarren antza pixka bat gaurko bankuek XVIgn. mendeko Berberi-aldeko itsas-lapurrekin: batzuekin ala besteekin harremanetan hasten dena, nolahi ere, arinago irteten omen da sartu den baino, diru gutxiagorekin alegia.

### **Aurkaritzakoak:**

Gaurko irakurlerik gehienak ez ditu aspertu etengabeko lelo horrek: gerokoekin zer gertatuko, ezin esan.

<sup>1</sup> Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. *Galdezka. Euskarazko zalan-tzei erantzunez*. Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2003.



### **Konpletiboak:**

Hauxe esango dut aurrenik, neretzat argi eta garbi dagoenez gero: biziro alaitzen nau, besteri besterik iruditzen bazaio ere, liburu hori euskaraz idatzita ikusteak, bizi-bizirik dugulako seinalea baita.

Ikusi dugu, beraz, nola jokatu esaldiekin, nola askatu trinkotasunaren korapiloa, nola aditzera eman gauzak beste era askeago batean: estiloaz ari gara. Honezkerok garbi geratuko zen oker handia litzatekeela bi puntuak gutunen hasieran egotera kondentzea. Puntuazio-zeinu honek joko handia ematen digu eta gauza askotarako balio dezake; besteak beste:

### **► Aditz nagusiak aurreratzeko**

Esaldiak luzeak badira, ez zaigu komeni aditzak oso atzean geratzea, informazio gune nagusi baitira. Bi puntuak bide ematen digute, batzuetan, aditz nagusiak aurrera eramateko.

**Hauxe da** gerra aurretik, gerratean eta gerra ondoan **ikasi dudana**: agintzen duena egiteko prest ez dagoen gauzarik ezin dakiokeela besteri agin.

### **► Ideiak azaltzeko**

Idazleak ideia nagusi bat botatzen du, biribila; eta gero, bi puntuen ondoren, frogatu edo zehaztu egiten du beste esaldi baten bidez. Hau da, *orokorretik zehaztasunetara* eramaten gaitu bi puntuen bidez.

Orixe ez zen inoiz hizkuntzaren edertasun hondargabeetan ito: hizkuntza zerbaitetarako nahi zuen, euskaldunaren izaera, gogo-giroa eta bizimoduak adierazteko.

Batzuetan, ordea, justu alderantziz gertatzen da: azalpenak datoz lehenago, eta ideia nagusia ondoren. *Zehaztasunetik orokorrera* goaz honelakoetan.

Euskaldun gehienok, guziok ez bada, badugu geure barrendegian txoko urri eta apaindura gabeko bezain maite bat: gure euskal baratztea.

Ideiak azaltze horretan, aukera hau ere badugu: *arrazoietatik ondoriora* jotzea.

Lan egiten du, umeak zaindu, bigarren karrera bat ikasten ari da, eta gainera, pianoa jotzeko astia dauka: bera bezalakorik ez dago.

Edo bestera: *ondoriotik arrazoietara*.

Nazkatuta nago: egunero jaiki, lanera joan, handik atera, telebista apur bat ikusi eta... hurrengo egunerako prest.

Ez dugu azalpen hau bukatu nahi, bi puntuen beste pare bat erabilera ezagun gogoratu gabe. Hona hemen:

### **► Gutunetako hasierako agurretan**

Besterik esaten ez den bitartean (beste hizkuntza batzuetan bestelako puntuazio-zeinuak erabiltzen direla honetarako) gutunetako hasierako deikiaren ondoren bi puntuak jartzen ditugu, eta gero letra larriz hasten gara idazten.

Lagun hori:

Gutun honen bidez...

### **► Orduak zenbakiz adierazterakoan**

Honelakoetan, bi puntu jarri ohi dira orduen eta minutuen artean: *18:30, 23:15...* Ikusten denez, tarterik ez dago bi puntuen ondoren.

**HAEEko Administrazio Hizkeraren Atala**

# Umeek gero eta denbora gehiago ematen dute eskolaz kanpoko ekintzetan. Egokia al da? Estresatu egiten ditugu?

Eskolatik atera eta hor ikusten ditugu haurrak atzera eta aurrera arineketa batean ogitartekoa eskuan hartuta: pianoa, karatea, esku-pilota, ingelesa, informatika... ikastera. Ikasi, agian, ikasiko dute, baina eurentzat ona da ia jolas ordurik gabe gelditzea? Udazkenak makina bat buruhauste ematen die gurasoei: ona da? zenbat? Zein ordutegi? Nor arduratuko da hurrekin?... Galdera hauei erantzuten ahalegindu dira gai honetan adituak diren bost lagun hauek.



## Amaia Sesma Pedagogo

Joan dira eskolan agindutako etxeko lanak bukatu ondoren, ogitartekoa hartu eta kalera ateratzen ginen garai haiek.

Gaur egungo familiek seme-alaben denbora libreari etekina atera nahi diote eta horretarako zera nahi dute: seme-alabek denbora ematea probetxugarria den zerbaitetan.

Guraso batzuek, beraiek lanetik atera arte umeak zainduta edo gordeta egon daitezten, egutegi-planning korapilatsuak egin behar izaten dituzte aitona-amonen laguntzaz iraileko lehen egunetan.

Gehienentzat eskolaz kanpoko ekintzak seme-alaben prestakuntza hobetzeko aukera bat dira; eta horrela izango litzateke, neska-mutiek beraiek aukeratuko balituzte ekintzak, eta, horrez gain, jolaserako eta aisialdirako astia izango balute.

Baina errealtatea askotan bestelakoa izaten da, aukeratutako hainbat ekintzatan derrigorrezko eskola orduetan exijitzen zaien diziplina, arreta eta lan erritmo bera (dena azkar eta ondo) ezarri nahi dietelako. Kirola egiterakoan, esate baterako, helburu nagusia bada lehia eta emaitza onak lortzea, eta ez lagunarteko jolasa, neska-mutil "dorpeenak" baztertuak izaten dira.

Horrelakoak gertatuz gero, adi egon beharko dugu seme-alabek adierazten dituzten SOSetara, bai berbaz, bai beste sintoma batzuen bidez, ESTRESATUTA egon daitezkeelako.

## Ana Eizagirre Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarteko presidentea

Eskolaz kanpoko ekintzen gaineko hausnarketa egiteak gai ezberdinak jartzen ditu eztabaidan, hala nola: denbora eta eskola erritmoa; ikaslearen, eskolaren eta familiaren denbora; jolas eta lanerako tartea.

Era berean, eskolaren eta bestelako hezkuntza-eragileen arteko harreman-motak planteatzera ere bagaramatza: ordezkapenak eta zaintze-harremanak planteatzera, hain zuzen ere. Ordezkapena behar da eskolak berak sortzen diren eskakizunei (hizkuntzak, informatika...) behar bezain ondo erantzun ezin dienean. Zaintza, berriz, familiak (gaur egungo egituragatik) bere gain hartu ezin duenari (hau da, aisia, jolasa...) erantzun behar zaiolako.

Guk aholku hauek kontuan izatea proposatzen dugu:

1. Atsedean uneak errespetatu behar ditugu, eta eskola-denbora, ikaslearena eta familiarena (lana, aisialdia, atsedena) bizitza-erritmoarekin sinkronizatu.
2. Ondo bereiztu ikaste-errefortzurako eskolaz kanpoko ekintzak batetik, eta jolasa eta aisialdia bestetik. Lehenengoak prestakuntza osoaren osagarriak izango dira beti. Bigarrenak, aldiz, ahal den neurrian, gure seme-alabek hautatuko dituzte, aukera zabalak emanda.
3. Eskola ordutegitik kanpo, denboraren bi herenak, gutxienez, jokoari –banakakoari zein taldekoari–, jolas-jarduerei eta atsedinari eskainiko zaizkie.





## Academia Zaldiaran

### Gasteiz

Ikasleek, eskolatik irten eta gero, era askotako ekintzak egiten dituzte. Gurasoek, zenbaitetan, akademia batera eramaten dituzte, gehienetan irakasleek agindutako ingelesezko edo euskarazko ariketak egiten ez dakitelako. Halere, bada bestelako arrazoirik: guraso batzuek ez dute astirik beren seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzeko.

Normalean astean bi edo hiru egunetan etortzen dira akademiara. Eta, horretaz gain, ikasle batzuk musika tresnaren bat jotzen ikastera joaten dira edo kirola egiten dute.

Gaur egungo umeek ordenagailuan jolasten denbora luzea ematen dutela kontuan hartzen badugu, argi dago zergatik zenbait gurasok nahiago izaten duten umeen denbora librean antolatzea eta, aldi berean, seme-alaben kurtsoa kontrolatzea.

Hori horrela izanik, gure ustez, ez ditugu umeak (adin bateko umeak, behintzat) estresatzen, zeren, gaztetxoak direnean, ez baitute zertan gogor ikasi; hau da, egunero etxeko lanak egiten badituzte, arazorik gabe gaingaitzen dute ikasturtea. Alde horretatik, ikasturteko eritmo horrek ez du estresa sortzen, lasaitasuna baizik.



### Alfonso Santamaria Garcia

#### Ekintza osagarri eta eskolaz kanpoko egitarauaren lurralde koordinatzailea

Nik uste dut, aitak edo amak ekintza hauek aukeratzen dituenen, bere seme-alabaren etorkizunerako beharrezkoa den heziketa osatzeko asmo onarekin egiten duela, baina beste haurrekin jolasteko duen beharra ahaztu egiten dugu. Izan ere, gure seme-alabak maiz eramaten ditugu klase partikularretara, etxerako lanak egitera, hizkuntzak

ikastera, informatikara eta kirola egitera. Gabezia horiek erreallak balira, hezkuntza sistemaren curriculumak bere edukia aztertu eta ikasgai horiek integratu egin beharko litzuke, gure seme-alabaren lan-jarduna ordu bat eta lau ordu bitartean luzatu ordez.

Jarrera honi eusten dioten arrazoiak, nire ustez, era askotakoak dira: lehenik eta behin, helduok daramagun bizitza estresatuak, gizarte guztiz lehiakorrek eragindakoak, elkar konparatzerak garrantzitsuak, besteak baino gehiago izatera, besteak baino... hobe edukitzerak... Honek guztiak gure seme-alabak presio berberaren eraginpean jartzera bultzatzen gaitu eta etorkizun hobe izan dezaten, beren orainaz gozatzea galarazten diegu nahi gabe. Bigarren arrazoiak lehendabizikoa bezain garrantzitsuak da: helduok ez dugu astirik ateratzen gure seme-alabei eskaintzeko. Aitaren zein amaren lan-ordutegiak zera eragiten dute: gurekin eta beren lagunekin gozatzen egon beharko luketen denbora aitona-amonekin edo hirugarren pertsona batekin ematen dute. Hirugarren arrazoiak guk kaleei diegun beldurra da, hauek ez baitaude haurrek eta hiritarrek gozatzeko diseinatuak, hiriko zirkulazioa ziurtatzeko baizik. Eta hartara, zera diogu: "Zenbat eta kontrolatuago dauden, hobeto".

Hala ere, nire iritziz haur bat gehien estresatzen duena bere aisialdian etxean sartuta egotea da, telebista ikusten eta helduekin bakarrik. Gurea bezalako gizarte aurreratueta, asti ordu gehiago ditugu; beraz, ondo pentsatu behar dugu zer egin denbora horretan. Nire proposamena ondoko hau litzateke: udal eta

gizarte erakundeek elkarren artean programak sortzea, ondo koordinatuta, merke edo dohainik, nahi duten guztiek askatasunez parte har dezaten.

### Luis López de Ciordia

#### Hezkuntza Premia Berezietarako Aholkularitza. Gasteizko Berritzeguneak

Agerian dago gizartea aldatzen ari dela eta denboraren kudeaketa gero eta kontu garrantzitsuagoa dela familien eguneroko bizitzaren antolamenduan.

Eskolaz kanpoko ekintzak (EKE) egokiak diren ala ez esan baino lehen, agian, zer ez diren jakin beharko genuke:

- EKEak ez dira gure seme-alabak aparkatzeko leku bat (eta bitartean guk denbora izan gure hobbyak edo beharrak asetzeko).
- EKEak ez dira txiki-txikitik (denbora irabazteko) kirolak edo lanbide artistikoei dagozkien ikasketak ordezkatzeko modu bat.
- EKEak ez lirateke izan beharko, nire iritziz, gizarteak eta merkatuak berak sortarazten dituen eskakizun berriengatik (ingelasa, adibidez) derrigorrezko kurrikulueta agertzen diren hutsuneak edo desfaseak konpontzeko bideak.

EKEak dira, batez ere:

- Joerei, gustuei eta zaletasunei antzemateko eta beraiek mugatzeko moduak. Gustu horiek aisialdiarekin bat egiten dute hasieran, baina gero sakondu egin daiteke horietan.
- Eskola kurrikulueta egituratuak dauden arlo batzuei hurbiltzeko beste era dibergente eta sortzaile bat.

Ikusten denez, EKEak aukera ona izan daitezke ikastetxea bere ingurunera zabaltzeko eta ikaslearen hezkuntza integrala lortzen laguntzeko, bai bere horizonte kulturalaren zabalkuntzan, bai bere gizarteratzerako prestakuntzan, bai aisialdiaren erabilera egokian.



# Beharrezko ekimena: Euskal administrazio publikoarentzako Ingurumen Prestakuntzako Plana, 2003-2006

## Sarrera

Gaur egun ingurumenak duen egoera dela eta, neurri berri-tzaileak hartu beharra dago, orain arte erabili diren politik-ekin lortutako emaitza ez hain onak ahal dela hobetzen saiatzeko. Orain arteko politikekin, ingurumenarentzat kal-tegarri edo errespeturik gabekoak ziren jarduerak muga-tzen saiatu dira erakundeak, debeku eta zigorrren bidez. Hori guztia batez ere industriaren arloan gertatu da, arlo hori baitzen, ustez, erantzule nagusia; baina azken urteota-ko egoerak erakutsi duenez, neurri horiek garrantzitsu eta beharrezkoak izan arren, ez dira nahikoa izan. Batetik, beste era bateko politikak ere sustatu beharra dagoela ikusi da, bestelako jarrerak sustatuko dituzten politikak, orain arteko joera debekuzalea bakarrik erabili gabe. Bestetik, eta batez ere, ingurumenaren arloko erronka berriak gizar-teko arlo guztietan leku hartuta dagoen garapen- eta jarre-ra-ereduaren ondorio direnez neurri handi batean, horrek **bestelako ikuspegiak** izatea eskatzen du. Zeintzuk dira bestelako ikuspegiok?

Prestakuntza eta hezkuntza dira kontsumoan eta garapene-an oinarritutako gaur egungo ereduak aldatzea lortzeko oinarritzko sentsibilizazio-tresnak. Gaur egun euskal admi-nistrazioak ikuspegi berri horretatik jo nahi du aurrera ingurumena hobeto kudeatzeko. Eta egia bada ere azken urteotan kanpaina, programa eta ekintza batzuk ere aurrera eramanez, beti ere gizarte osoa eta bereziki eskolan dihardutenak kontuan izanda, oraindik ere ez zen ikusten jarduera profesional guztietako pertsonengana jo beharra.

**Garapen Jasangarrirako 2002-2020 Urteetarako Euskal Ingurumen-estrategiak**, 2002an gobernuak onar-tu ostean, hainbat konpromiso jaso zituen, eta horien arte-ko bat ingurumenaren arloko prestakuntza-plan bat idaztea izan zen, euskal administrazio publikoetan ziharduten lan-gileei zuzendua. Plan horretan aipatzen diren helburuak lortzeko, estrategian **beharrezko baldintza batzuk izatea aipatzen da, jasangarritasunerantz jotzeko**. Baldintza horietako bat “herritar, administrazio eta enpresek gaitasu-na lortu eta horiek ere erantzukizunak hartu eta jarrerak aldatzea da”. Ikuspegi hori hartuta, hau da, gizarte osoak naturako baliabideak zaindu beharrekoak direla jakinda, **profesional guztiak prestatu beharra** dagoela ikusten da, edozein jarduerak izan dezakeelako eragina ingurumenean. Hori da, hain zuzen, 2003-2006rako Ingurumen Prestakuntzako Planaren testuingurua, Euskal Autonomia Erkidegorako egindako lehenengoa.

## Helburuak

**2003-2006rako Ingurumen Prestakuntzako Plana** adminis-trazioko langileei ingurumenaren ikuspegia sail guztietan barneratzen laguntzeko prestatu da, horren bidez jasanga-rritasunaren alde egin dezaten. Azken helburu hori lortze-ko, **bi helburu zehatz** jarri dira:

- Euskal administrazioetan diharduten langile guztiei pres-takuntza eskaintzea, ingurumenaren ikuspegia sail guz-tietan barneratzeak zer nolako ondorioak dituen ulertze-ko eta 2002-2020 estrategian jasotako konpromisoak bar-neratzeko.
- Hartzaile diren pertsonen eta administrazio publikoaren beraren ikuspegia eta jarrerak aldatuta, sentsibilizazioa areagotzea.

Proposamen hauen azken xedea administrazio publikoak Europako politikatik datozen erronka berriak bere egin ahal izatea da, batez ere ingurumenaren ikuspegia barne hartzea nabarmentzen delarik beharrezko jarduera-printzi-pio gisa (hau da, ingurumenarekin zerikusia duten irizpi-deak jarduera-eremu guztietan erabiltzea, ez orain arteko politiketan bezala, ingurumen sailak baitziren kontu horre-kin arduratzen ziren bakarrak). Eta printzipio hori betetze-ko asmoz, ingurumenaren arloko prestakuntza bide egokia izan daiteke profesionalek hobeto uler dezaten haien lan-postuaren edo aurrera daramaten jardueraren eta inguru-men nahiz baliabide naturalen artean zer nolako harremana dagoen.

## Norentzat?

Plan hau euskal administrazio publikoetan diharduten lan-gile guztientzako da, hau da, Eusko Jaurilaritza –bertako erakunde autonomo eta enpresa publikoak barne direla–, diputazio eta udaletako langileentzat. Dena den, ez dira barruan sartuko irakasleak, osasun arloko langileak, justiz-ia-administraziokoak eta Ertzaintzako kideak.

## Diseinatze prozesua

Aurrerantzean HAEEK prestakuntza eskaintzeko erabili ahal izango duen behin-betiko proposamena idazten 2003ko martxoaren erdi ingurutik irailaren amaierara arte jardun da, lantalde tekniko baten gidaritzapean. Ondorengo kideek osatzen zuten lantalde hori: Eusko Jaurilaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko ordezkariak,

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta IHOBek (Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoak), esleipena jaso zuen enpresarekin batera.

Plan hau diseinatzeko prozesuan, ezaugarri nagusia hartzaileen parte hartzea bilatzen saiatzea izan da; izan ere, ingurumenaren arloko prestakuntza eskaini nahi zaien langile horien premia, iradokizun eta iritziak kontuan hartuta bakarrik lortu ahal izango da sailletako benetako egoeratik gertu dagoen plan bat idaztea. Hori dela eta, plana diseinatzerakoan erabilitako informazio-iturri nagusia Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde autonomo guztietan hainbat eratan banatutako **inkesta** bat izan da. Lana erosoago bideratzeko eta diputazio eta udal guztietan egiteak ekarriko lituzkeen arazoengatik (nahiz eta horiek ere prestakuntza jasoko duten), erakundeok inkestan ez sartzea erabaki zen; dena den, bi erakunde horiek erakunde guztien artean osatutako mahaian ere badaudenez, ekimenaren berri izan dute (mahaia hori Garapen Jasangarriaren Euskal Estrategia jarraitzen duena da, eta ingurumenaren arloan eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta diputazioetako sail eta departamenduek eta EUDELeke ordezkariak osatzen dute). 2003ko maiatzeko hiru astetan zehar hainbat sail eta administrazio-mailatako ia 700 inkestaren erantzunak jaso genituen, eta horien bidez bi gairen inguruko informazioa eskuratu genuen: batetik, inkestageileek zer nolako lotura ikusten duten beren sailaren eta ingurumenaren artean, eta bestetik, ingurumenaren arloko prestakuntza jasotzeko zer nolako premia ikusten duten, beti ere sailleko eta lanpostuko eginkizunak eta ingurumena lotuta dauden neurrian.

Inkesta egiteaz gainera, beste hainbat **bilera** ere izan dira prestakuntzako koordinatzaile, erakunde arteko talde, zerbitzuetako zuzendaritza eta beste batzuen artean. Bilerotan, ekimenaren abiaburua zein den, eginkizunak zeintzuk izango diren eta ahalik eta pertsona gehienengana iristeak zer nolako garrantzia izango duen azaldu zitzairen. Prozesua ahalik eta egokiena izateko moduez ere jardun zen, kontu ezaguna izan eta sailletako langileek modu aktiboan parte hartzea lortzeko.

Horren guzti horren bidez, prestakuntza eskaintzeko ordurako informazio baliagarria eskuratu da. Jakina, lortutako informazio hori mugatua da, hau da, **pertzepzio subjektiboaren bidez** eskuratutako informazioa dugu, eta nahiz eta fidatzekoa izan, lortutako erantzunak asko izan direlako, bide erakusgarri badi-rela uste da, baina ez errealitate objektiboak. Dena den, pertzepzioak aztertzea, lanbideak ingurumenarekin duen loturarekiko zer nolako ustea dugun ezagutzea, biderik egokiena da ingurumenaren arloko prestakuntza-plan bat diseinatu eta sailletan egiten diren lan guztietan ingurumena kontuan izango duten irizpideak barne hartzeko.

### Zer nolako prestakuntza jarriko da abian?

Lehen aipatu dugun informazio hori eskuratuta, aurrera eramango diren **ekintzen zer-nolako** zehaztu da, eta baita bakoitza batez ere nori zuzendutakoa den eta gutxi gorabehera nola antolatuko den (formatua, ordu kopurua, edukia e.a.). Ekintzok, aipatutako eran antolatu ostean, hiru multzo nagusitan batu dira, prestakuntzako premien ondorioz lortu nahi dituzten helburuen arabera:

- Batetik, ekintza batzuen bidez egoerarekin sentsibilizatzea lortu nahi da, hau da, dena delako sailak ingurumenarekin zer nolako harremana duen erakutsi nahi zaio hartzaileari.
- Bestetik, prestakuntzako ekintza orokor edo oinarrizko batzuk zehaztu dira, gairik zabalenei buruz jakin beharrekoak zabaltzeko, kontu horien gaineko informazio zehatzagoa eskatzen baita.
- Azkenik, kontuan izanda zenbait sailek ingurumenaren arloko eskumen eta eginkizun bereziak dituela, horientzako ekintza tekniko eta sakonagoak jaso dira.

Era berean, hartzaile jakin batzuk aurreikusten zirenez, gogoan izan dira inkestan adierazitako joera nagusiak, eta hori horrela izanik, ekintza batzuk sail guztietara bidali dira, beste batzuk zenbaitetara, eta batzuk baita sail bakar batera ere. Jarduteko modu hori oso garrantzitsua da ingurumenaren arloko prestakuntzan, gogoeta egiteko, elkarrizketa lantzeko gune orokorrak eskuratzea lortu nahi baita, nahiz eta zenbaitetan oso gai zehatz eta teknikoak eskatu diren. Aurreko hori da, hain zuzen ere, ingurumenaren arloko prestakuntzako planaren beste gakoetako bat: kontua ez da, besterik gabe, ingurumena sail guztietan kontuan hartzea lortzea, ezpada eze administrazioeko esparru guztietako jarduera-eremuen artean jakingarriak trukatzeko, jasangarritasuna lortzeko modurik onena denok horretaz arduratzea eta erronka horri aurre egiteko borondatea izatea dela uste baitugu.

### Ondorioak


Azken batean, 2003-2006rako Ingurumen Prestakuntzako Plana idaztean hartzaileak kontuan hartzea nahi izan dugu, administrazioa eta bertako langileak gaitzeko. Beste arlo batzuetan agian beste plan integral batzuk idatzi beharra egongo dela ukatu gabe, Euskal Autonomia Erkidegoak Garapen Jasangarriko 2002-2020 urteetarako Ingurumen Estrategian hartutako konpromisoengatik eta ingurumenak benetan duen egoeratik, kontzientziatzeko eta parte hartzeko ahalegin handia egin behar dugu denok, eta aipatzen ari garen planaren bidez hori lortu nahi dugu. Hori izan zen ekimenaren abiaburua eta ilusio horrekin egin dugu aurrera helburuak zehazterakoan.

Bidezkoa da lan honetan barrutik edo kanpotik jardun duten guztieki eskerrak ematea, bileretako kide izanik edo inkestaren bidez ingurumenaren arloan zer nolako premiak dituzten adieraziz modu erabakigarrian lagundu digutenei eskerrona erakustea.

Bukatzeko, 2003ko bukaera aldera plana lehen urratsak ematen hastea baino ez da falta; gizartearentzat premiazkoa den lan horretan denok parte hartzea eskatzen dizuegu; horra gure gonbita.

**Manuel Fernández González**


**Bakeazeko kidea, proiektua idazteko arduraduna**  
[mfernandez@bakeaz.org](mailto:mfernandez@bakeaz.org)



**Busturialdeko Esakerak**

Batzuen artean  
Gernikako Udala – Bermeoko Udala  
Bilbao, 2003  
34 or.


Hainbat tokitan jorrotutako gaiari eutsiz, oraingoan Busturialdean erabiltzen diren esaera asko dakarzkigute liburuxko honetan. Jaso, euskaraz bizi diren lagunentzat ahotik jaso dituzte eta, beraz, eguneroko bizitzan entzun daitezkeen kaleko esaerak dira. Gazte jendeari zuzendutako lana denez, aurkezterakoan didaktikotasunari begiratu diote gehienbat, eta, horrela, erraz ulertzeko moduko sailkapena egin dute, eta esaera batzuk irudi eta guzti agertzen dira. Esaera bakoitza, lehenbizi, eskualdeko ahoskera erakusten duen grafian idatzita dago; eta gero, azpian, gaur eguneko arau ortografikoak kontuan izanda idatzi da.



**Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Euskara: 1833-1877**

Euskarazko Testuen Bilduma eta Azterketa  
Urrutia Badiola, Andres (zuzendaria)  
Bizkaiko Batzar Nagusiak – Deustuko  
Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua  
Bilbao, 2003  
383 or.

Hona hemen Bizkaiko Batzar Nagusietan XIX. mendean idatzitako euskal testu juridiko-administratiboak goitik behera aztertuta. Liburuak atal nagusi hauek hartzen ditu: hizkuntzen erabilera Bizkaiko Batzar Nagusietan, XIX. mendeko euskarazko testugintza, euskarazko testuen hizkuntza-azterketa, testu elebidunen bilduma, eta testuen lexikoa (gaztelania-euskara).



**Bizkaiko euskararen esaldi eta testu ereduak**

Gida liburua - Ariketa liburua – CDa  
Gaminde, I.; Goikoetxea, J.L.; Sarriugarte, I.  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Gasteiz, 2002


Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak bizkaiera lantzeko material berria eskaintzen digu oraingo honetan: bi liburuxka eta CD bat. Ikasleak aukera izango du Bizkaiko herri askotako hizkera entzun eta hartara ohitzeko. Lau ariketa-mota aurkituko dituzu: esaldi ereduak (entzun eta laukiak betetzeko), ulermena (entzundako testuari buruzko galderak), kontaketa (berba egiteko ariketak) eta hiztegia (hitzak bereizten ikasteko, zein den bizkaierarako bakarrik, zein baturako bakarrik eta zein bietarako). CDak, edukien aldetik, bi atal nagusi ditu: alde batetik, esaldi ereduak (juntagailuak eta menderagailuak); eta, bestetik, testu ereduak.



**La traducción científico-técnica y la terminología en la sociedad de la información**

Col.lecció “Estudis sobre la traducció” 10  
Alcina, Amparo; Gamero, Silvia  
Universitat Jaume  
Castelló de la Plana, 2002  
285 or.

Itzultzaile profesionalak, itzultzaile, interprete eta terminologoentzako eskoletako irakasleak, itzulpen-tresnetan adituak... euren iritziak eta esperientziak azaltzen saiatzen dira liburu honetan. Bost ataletan dago banatuta: lehenengoan itzulpegintzak informazioaren gizartearekin dituen lotura esanguratsuenak aztertzen dira; bigarrenean itzulpen zientifiko-teknikoari buruz eta terminologiaren inguruan gaur egun gauzatzen ari diren egitasmoak aurkezten dira; hirugarrenean hainbat arlotako itzultzaile profesionalak euren iritzia azaltzen dute; laugarren atalean teknologia berriek itzulpen-gintzan eta terminologian duten eragina jorratzen da; azkenik, bosgarren atalean zenbait informatika-programa eta datu-base aurkezten dira. Gaur egun itzulpen-gintzaren inguruko esperientziak eta adituen iritziak jasotzeko egokia.



**Ahozketasuna aztergai**

Mendebalde Kultura Alkartea  
Bilbao, 2003  
210 or.

Mendebalde Kultura Alkartea urtero-urtero antolatzen dituen jardunaldietako hitzaldiak argitaratzen ditu. Azkena eskuartean dugun hau da; hain zuzen ere, *Ahozketasuna aztergai* izeneko jardunaldiei dagokiena. Honela, euskalkien ahozko erabilerari buruzko ondorengo hamar gai hauek aztertzen dira: literaturaren esparruan bertso paperaren interpretazio ugarien eta lekuan lekuko aldaerak; ahozkotik idatzirako ahalbideak; irratigintzak ahozko komunikabideetan duen garrantzia; Iparraldeko egoera: hiztun euskaldun adinekoak eta irradi-telebisten euskararen arteko aldea; eskolak ahozko ondarea jaso eta landu ondoren, ikasleari itzultzeko modua; ahozko ereduak prestigiatzeko irakaskuntzan izandako esperientzia; aldaketa linguistikoa-ren gaineko hausnarketarako bidea; euskalkien egoera batuaren hedapenaren ondoren; hizkuntzaren ahozko transmisioaren indarra eta indar horren ahultze edo galtzeko arriskua; eta, hizkera informala garatzeko orduan, erdaretarako dugun joera.



# Matxinada bat

**E**z dakit gogoan izango duen irakurleak duela hamar bat urte gure kaleetako hormetan maiz azaldu zen pintada hura: gizon eskematiko bat, korrikan, lantza eskuan, txapela buruan eta aurpegia estalita; azpian, letra larriz eta harridura-ikurrarekin, “matxinada” hitza. Erreboltarako deia zen, antza, sistemaren kontrako oihua, eta niri grazia egiten zidan, euskal historiako matxinadek, Antzinako Errejimeneko garaioek alegia, zer ikusi gutxi baitute pintada haren izpirituarekin; ondo dakit matxinada kontzeptuaren esanahia hedatu dela sortu zen garaitik, baina –historialari-deformazioa izango da, ziurrenik–, ezin burutik kendu XVII eta XVIII. mendeko matxinadak, zer edo zer izan baziren, mugimendu “kontserbatzaileak” izan zirela, “lehenago egoera” berrezarri nahi zutenak hain zuzen ere.

Adibiderik behinena 1766ko matxinadak eskaintzen digu. Gipuzkoako mendebaldea izan zen mugimenduaren gune zentrala. Aurreko urteetako uztak eskasak izan dira, eta gariaren eta artoaren prezioak gora eta gora ari dira, soldatak ez bezala. Errenta- eta hamarren-jasotzaileen espekulazioa aleekin gero eta ageriagoa egin da; atsekabe giroa, nabarmena leku askotan. Matxinada udaberrian gauzatuko da, udako uzta baino lehenago, hots, prezioak altuen izaten diren garaian. Azkoitian izan du hasiera: apirilaren 13an, igandean, giroa ikusita, herriko bikarioak espekulazioaren kontrako aldarria egin du pulpitutik, baina 14ean, ale-anega batzuk ezkutuan ateratzen ari direla ohartu, eta zenbait zapatarik eta olagizonen zaldiak gerarazi eta kargatu zituzten etxera eramane dituzte bueltan: alea deskargatu eta dirua itzuli diete erosleei. Azkoitiko jauntxoak hurbildu dira gero, arduratuta, zer nahi ote duten galdetuz; matxinoen erantzuna aleen prezioen jaitsiera izango da, noski. Ezinegona ikusiz, jauntxoek amore eman eta tasa ipini diote prezioei, eta jendetza etxera itzuli da, lasai, bazkaltzera.

Gertatutakoaren oihartzunak heldu dira, ordea, Azpeitira, eta bertako jauntxoek, izututa, zenbait baserritarri dei egin diete, eta armez eta ardoz ondo hornitu ere, herria Azkoitiko matxinoengandik defendatzeko asmoz edo. Baina gaua aldera, Azkoitian jazarraldia baretu dela jakin ondoren, saiatu dira baserritarrak desarmatzen, alferrik baina: ondoko herrian gertatutakoaz jakitun, eta “azkoitiarrak baino beheragoko kondizioak ez direlakoan”, prezioen jaitsiera eskatu diete haiek ere jauntxoei, baina hauek amore eman nahi ez, eta iskanbila gero eta handiagoa bihurtu da. Azpeitiko jauntxoak, orduan, erreklutatzen saiatu dira Loiolako basilikan lanean ari diren harginak eta igeltseroak, beren interesen defentsan, baina langile horiek ere bat egin dute, azkenik, Azpeitiko eta inguruko matxinatuekin. Berriro ere altxatu diren Azkoitikoekin batera, izua zabalduko dute Azpeitiko jauntxoaren artean, eta apirilaren 15ean lortuko dute, baita Azpeitian ere, prezioen tasa, bidean gehitu egin diren beste zenbait eskakizunekin batera (esaterako, aleak neurtzeko erabiltzen ziren gailu ofizialen berdintzea, bi baitzeuden garai hartan: bata, handiagoa, errentak jasotzeko, eta bestea,

txikiagoa, salmentarako... baserritar xehearen kalterako zena, noski).


Ondorengo egunetan Urola eta Deba bailaretan zehar zabalduko da matxinada, eta herri gehienetan antzeko gauzak gertatuko dira. Hilaren 22an Donostiatik inguruko herritarrez osatutako milizia bat irtengo da eta, Bergara edo Oñati bezalako herrietako beste miliziekin eta espainiar Armadako gudaroste txiki baten laguntzarekin, hilaren amaierarako herrialdea “baketuko” du, hainbat atxiloteta aginduz. Dena dela, gudaroste horiei Armadako beste zenbait konpainia gehituko zaizkie udan zehar, matxinada arriskua bere horretan zegoela adierazten diguna; urte amaierarako jadanik nagusi da giro baketsua: amaitu da 1766ko matxinada (datu gehiago nahi duenari Emiliano Fernández de Pinedoren lan klasikora jotzea gomendatuko nioke, *Euskal Herriko ekonomi hazkundea eta gizarte aldaketak 1100-1850* liburura alegia: bertan dago, ziurrenik, euskal matxinaden inguruko azterketarik sendoa, eta handik jaso ditugu datu hauek guztiak).

Matxinada ez zen oso odoltsua izan (agintariak berehala eman zuten amore leku gehienetan, ikusi dugunez: Bergarako jauntxoak oso harro zeuden beren herriko miliziak ordenaren defentsan jokatuak izan zirela, baina nekez aitortuko zuten aurretik, badaezpada, aleen prezioak jaisteko neurriak hartu zituztenik, herritarren onespena lortzeko asmoz). Eta, ondorioz, errepresioa ez zen aurreko matxinadetan (1718, 1755) bezain gogorra izan: gartzela-zigorak, erbestertzeak... Handikiak, hala ere, kexu ziren “biguntasunaz” (heriotza-kondenak nahi zituzten haiek). XVIII. mendea opa-roa izan zen, ekonomi hazkundekoa, baina batzuentzat beste batzuentzat baino gehiago: aberastasunaren polarizazioa handiagoa egin zen Euskal Herrian garai horretan zehar. Gizartea aldatzen ari zen, eta eguneroko bizitzan gero eta leku handiagoa eskuratzen ari ziren merkatu-elkartrukeak eta pseudo-kapitalistatza jo daitezkeen harremanak. 1766ko matxinada, European Aro Berrian gertatu ziren beste hainbat bezala, joera horien kontrako mugimendutzat jo daiteke, pixkanaka desegiten ari zen komunitate-sena berreskuratzeko ahalegin bat; pipiak jotako ordenu feudalak ezin izango zuen, ordea, luza-roagoan mantendu. Horregatik esan dut, hasieran, mugimendu “kontserbatzailetzat” har daitezkeela matxinadak. Aldarrikatzen zuten iragan hobe eta bidezkoago hura, askotan, mitotik hurbilago egoten zen arren.

Euskal Herria, Europako eskualde gehientsuenekin batera, krisi giro batean murgilduko da hurrengo hirurogeita hamar urteetan (gutxienez); batzuentzat, lehenengo karlistada (1833-39) azkeneko matxinadatzat har daiteke, hein batean behintzat. Krisi horretatik sortuko da egun ezagutzen dugun mundua: “Matxinada!” hura bezalako pintadetara (besteak beste) behartzen gaituen mundua.

**Iban Zaldúa**  
EHUKO irakaslea

# Hitz gurutzatuak




## EZKER ESQUIN

1. Gizon izena. 2. Bihi, garau. Sindikatu abertzalea. 3. Ate txikia. Noka, du. 4. Musika nota. Herri amerindiarra. 5. Röntgen. Ipar, esna. Kontsonantea. 6. Meharrak. Errepikatuz, txori mota. 7. Nauka. Karrika. 8. ... egina, zeharo mozkortuta. Egiteko, betebehar. 9. Laster, agudo.

## GOITIK BEHERA

1. Mesedez! 2. Sarrera. Putre. 3. Gabarra. Itsas arraina. 4. Unatu, akitu. 11. eta 27. letrak. 5. Zenbaki erromatarren arabera, bostehun. Adi ezak! Potasioa. 6. Ald., egile atzizkia. Ahula, motela. 7. Detektagailu. Bizkaian, sobera. 8. Euskal aurrizkia. Zegoen. 9. Oparoa, emankorra.

# Letra zopa



LUMA

Aurki itzazu letra zopa honetan arotz batek erabili ohi dituen zortzi lanabesen izenak. Hitzak ezker eskuin, goitik behera eta diagonalean azalduko zaizkizu.

## Euskararen inguruko zenbait telefono

- AEK: 94/424 17 10
- Argia: 943/37 15 45
- Berria: 943/30 40 30
- EIZIE: 943/27 71 11
- Euskal Herrian Euskaraz: 943/ 44 56 65
- Euskal Irrati Telebista (EITB): 94/ 603 10 00
- Euskal Kulturaren Erakundea: 00-335-59 93 25 25
- Euskaltzaindia: 94/415 81 55
- HABE: 943/02 26 00
- Helduen Euskalduntzerako Euskaltegia (HEI): 948/17 76 70-54
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP): 945/01 76 00
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: 945/01 81 10
- Ikas eta Ari (IKA): 945/28 89 22-44
- IRALE: 945/27 44 00
- Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO): 945/01 76 56. FAX: 945/01 76 03
- Kultura Saila: 945/01 94 64
- NAPIko Euskaltegia: 848/42 33 19-51
- NAPIko Euskara eta Hizkuntz Komunitarioak Zerbitzua: 848/42 33 49-51
- Udal Euskaltegiak: 94/440 62 17 943/80 52 54
- UZEI: 943/47 33 77

## Soluzioak

Alhiketa, zizela, bihurtina, mailua, daratua, ilizta, ingurda, torfoja.

**Letra zopa**

9. Naroa.  
Aizaki K. 6. el. Makala. 7. Radar. Lar. 8. Bir. Zen.

**Goitik behera:**  
1. Arren! 2. Ate. Sat. 3. Ala. Aitua. 4. Nekatu. Kz. 5. D.

9. Azkar.  
R. Aizar. R. 6. Etsuk. Zo. 7. Nau. Kalea. 8. Inki. Lan.

**Ezker eskuin:**  
1. Ander. 2. Ale. LAB. 3. Aitaka. Dim. 4. Re. Ainar. 5.

**Hitz gurutzatuak**

**AUTODEFINITUA  
TEMATIKOA: OSASUNA**



# EFG

medikamentu  
**GENERIKOIA**

*gehiago da*

**Gehiago guztientzat**

**Merkeagoak**

**Inbertsioan eraginkortasun handiagoa**

**E.F.G., izen bera guztietarako**



Osakidetza  
Servicio vasco de salud

# EFG

medikamentu  
**GENERIKOIA**

*gehiago da*



**herria**  
aurrera doan

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD



**Liburu hau hemen duzu salgai:**



**Unibertsitateko etorbidea z/g  
20600 Oñati  
Tf.: 943 782 000  
Fax: 943 783 177  
[argitalpenak-ivap@ivap.es](mailto:argitalpenak-ivap@ivap.es)**